

ITZULPENAREN MUNDUA ETA EUSKAL ITZULTZAILEEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZARAKO ESKOLA

(Dossier-Aurreprojektua)

Donostia, 1980-III-28

Xabier Mendiguren

SARRERA OROKORRA

ITZULPENA MUNDUAN

- Sarrera
- Itzulpena eta Linguistika
- Itzulpena, leialtasuna, baliokidetza
- Literatur textuak eta itzulpena
- Itzulpenari buruzko bibliografiaz
- Itzultzaile eta Interpretari Eskolak CIUTI-ren arabera

ITZULPENA GUREAN

- Euskara xede nahiz sorburu hizkuntza dela egindako itzulpenen zerrenda
- Euskal itzulpenari buruzko zenbait gogoeta
- Euskal Itzultzaileen prestakuntzarako Ikastaldiak
- Euskal Itzultzaileentzako Inkesta
- Euskal Itzultzaileen Lan Ihardunaldia

ITZULTZAILE ESKOLAREN ZUINAK

- Premia
- Antolaketa faseak
- Itzultzailearen prestakuntzaz
- Helburu nagusiak eta bereziak
- Asignaturak
- Irakaslegoa
- Ikaslegoa
- Funtzionamendua:
 - ikasturtea
 - erakundetzea
 - egoitza
 - kanpo ekintzak
 - hedapena

Mundu mailako
itzulpena

- Itzulpenari buruzko bibliografia eta aldizkarietako buruzko informazioa.
- Itzulpenaren historia eta egoera gaur munduan.
- Itzulpenaren teoria gaur.
- Linguistika eta Itzulpena.
- Itzultzaile eta Interpretari Eskolak munduan.

Euskal Herriko
itzulpena

- Euskal Itzulpenaren zerrenda eta historia.
- Gaurko euskal itzulpena (mugak, alderdi positiboak, negatiboak, alor berriak, etab.)
- Euskal hizkuntzalariak eta Itzultzaileak.
- Euskal Itzultzaileen Eskola (Helburuak eta Etorkizuna)
- Euskal Interpretariak.
- Itzulpen teknikoak eta itzulpen literarioak.
- Erakunde publikoak, argitaletxeak eta itzulpena.

SARRERA OROKORRA

Euskaltzaindiak Euskal Itzultzaileen Prestakuntzarako Eskola bat diseinatu eta antolatzeko eskabidea egin zigunean, berehalaxe jabetu ginen, era honetako eginkizun batek berekin dituen zailtasun eta oztopoez. Nonbait egina eta taxutua dagoen zerbait besterik gabe gureratzea aski izango balitz, gaitzerdi litzateke, baina gure egoera bere alderdi guztiekin kontutan hartuz gero, garbi ikusten da guri komeni zaigun Itzultzaile Eskola batek arras berezia izan behar duela atzerrian aurki ditzakegunen aldean. Itzulpen teori liburuak, ikasplanak, eta era guztietako baliakizunak erabil ditzakegu esku artean, baina horiek guztiak gure premia eta egoerara egokitzeak hautakizun multzo ugari baten aurrez-aurre jartzen gaitu.

Zer erizpidez balia arrazoizko hautaketa egin ahal izateko? Hurbilpen prozesu bat ireki eta inguraketa baten bitartez auziaren funtsa mugatzeari hobetsi diogu, ezin bestean.

Beraz, Eskolaren Projektu zehatza haseratik eta tupustean egitea baino fruitukorrago iruditu zaigu, informazio eta eritzi multzo bat biltzea, zehazketak bigarren saio batetarako utziz, eta esan bezala, argigarri eta orientagarri gerta litekeen hurbilpen hauetan hiru bat multzo edo ardatz nagusiren inguruan gogoeta-gaia biltzeari ekin gatzazkio:

- a) **Itzulpena munduan**
- b) **Itzulpena gurean**
- c) **Gure Itzulpen Eskolaren zuinak**

Lehen sailean, sarrera labor baten ondoren, itzulpena eta azken aldiko linguistikaren arteko harremanak, itzulpena, leialtasuna eta baliokidetzatza, itzulpenari buruzko oinarriko bibliografia, itzultzaile eta interpretari eskola batzutako helburua eta ikasplanak etab. bezalako gaiak nolabait aztertzen saiatu naiz, orientabide teoriko-praktiko zabal baten barruan jokatu ahal izateko. Damurik, nahi adina iturburu eta asti izan ez dugularik, agian eskaintzen dugun ikuspegia ez da trinkoegia gertatu.

Bigarren sailean, hots, gure itzulpenaren mundua ukitzen duenekoan, euskara xede eta iturburu hizkuntzatza harturik egin diren eta liburu bezala argitaratutako itzulpen-moldapenen zerrenda ahalik eta sistematikoena egitearenetik eta gure itzultzaileei inkesta bidez, informazio orokor bat eskatzearenetik, kontzientzia profesionala, zailtasun linguistikoak, Itzultzaile Eskola, itzultzaileen erakundetzea, Lan Ihardunaldiak etab. bezalako gaien inguruan galderak eginez. Arrazoi askorengatik, Itzultzaile Eskola honen ingurune hurbila eratuko duen euskal itzultzailegoaren eritzia baliotsua ezezik oso kontutan hartzekoa dela uste dugu.

Eta guzti honen ondorio bezala, iradokitzen da datorren Udako Euskal Unibertsitatean *"Euskal Itzultzaileen Lan Ihardunaldia"* lehenengoz antolatzea, inkestatuek aho batez eskatuaren arabera.

Azkenik, hirugarren sailean, *Itzultzaile Oinarriko Prestakuntzarako Eskola* (EIOPE) dei genezakeen horren lehen hurbilpen bat eskaintzen dugu, gaingiroki bada

ere, honako puntuoi buruz zenbait zehaztasun eskainiz: antolaketa faseak, helburu nagusi eta bereziak, prestakuntzari buruzko gogoetak eta ikasgaien zerrenda, irakaslegoaren eta ikaslegoaren berezitasunak, funtzionamenduari buruzko zehaztapenak (ikasturtea, erakundetzea, egoitza, kanpo ekintzak, hedapen plangintza).

Aurreproiektu honetan eskaintzen denak behin-behineko balioa besterik ez du, eta beraz alderdi guztietatiko iradokizunei irekirik dago. Biziki eskertuko genuke gauzak zehazten eta osatzen lagun dezan orientazio oro, edonondik datorrela ere.

Ondoren, beharrezko jotzen dugu Eskola horren habeak izango diren bizpahiru lankide lanera sarreraztea eta aipatuniko bigarren saioari ekitea Eskolak ekinean has-teko beharrezko duen Proiektu eta Aitzinkontu zehatza egiteko eta ikasturtearen haserarako burutu behar den programa zehatza eta materiala prestatzeko.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu alde zedo moldez, era guztietako laguntza eskuratu digutenei, eta inkestabidez bere ohar baliotsuak egin dizkiguten itzultzaile horiei, guztion artean "ekinak jarraipena" izango duen uste osoz.

ITZULPENA MUNDUAN

Sarrera

Mende luzeetan zehar, itzulpena literatur ariketatzat hartua izan da, eta beronen abiaburu eta teknikez esan zitekeena erretorika eta estilistikaren eremuan sarten zen, eta oso zeharbidez gainera. Itzultzaileek enpirikoki kodifikatzen zuten alor honetan eskuraturiko esperientzia. Itzultzailearen lanbidea garatzean eta itzulpen kopurua ugaltzean, nazio mailako erakundeak eurrez sortu dira, nazioarteko federakunde bat antolatzeraino; halaber, itzulpenari buruzko argitalpenak ere nabarmenki ugaltu dira.

Bitxiena zer da, azken urteotara arte, linguistikak aintzakotzat hartzen ez zuen eragiketa zela. Baina 50. urteetan hasita jarrera hau aldatuz joan bada, arrazoirik aski izan da horretarako: Kanadan, adibidez, administralgo elebiduna sortu zen, Itzultzaileen Bulego Ministeriala sortez; *American Bible Society* delakoak testu sakratuen itzulketak ia maila industrial batetan eragiteari ekin zion, itzulpen departamenduen ardura hizkuntzalari trebeen eskutan jarritz; Sobietar Batasunean, berriz, aintzinatiko usadioaren arabera itzulpena sorkuntza literarioaren hierarkian oso goi maila batetan aurkitzen dugu eta 1949. urteaz geroztik, matematikariak, ingeniariak eta logikariak ere alor honetaz arduratzen hasi ziren ordinarro elektronikoak itzultzeko makina bihurtu zitezkeen. Nolanahi ere, iparramerikar linguistika izan da linguistika eta itzulpena elkarrekiko harremanetan jarri dituen, teoria mailan problemak argituz. Sobietarrek, beren aldetik, itzulpen moeta desberdinei buruzko abiaburu eta teknikazko ikuspegi sistematizatu bat eskaini duten bitartean, kanadiarrak, aldiz, aurrenak izan dira lehen itzulpen metodo bat eskaintzen. Itzulpenak sortzen zituen usadiozko arazo literario eta estilistikoetan katigaturik oraindik behar adinako aurre-rapenik egin ez bada ere, ohargarriak dira hizkuntzalariek burutu dituzten zenbait talde lan. Halaber, itzulpen automatikoaren bidetik eman diren urratsei esker ere, hainbat teoriako arazoren soluziobidea ikusi da, eta garai batetan, aski subjektiboki,

hizkuntzen itzulezintasunaz eta “jeinu” bereziaz mantentzen ziren mito zaharrak, pixkanaka burutuz doazen analisisia linguistikoen argitan beren balioa galtuz doazela aitor genezake.

ITZULPENA ETA LINGUISTIKA

Itzulpena egintza linguistikoa

Gaurreguneko itzulpen teoria eta praxia baldintzatzen eta inguratzen dituen faktoreak behar bezala ulertu ahal izateko, hizkuntzaren ikasketa zientifikoak itzulpen prozesuaren baitan duen eragin berezia da azpimarkagarriena. Beraz, larriki bada ere, beharrezkoa da behinola hizkuntza nola ikusten zen eta gaur, berriz, nola ikusten dugun adieraztea.

Sarreratik bertatik esan dezagun gaurregun hizkuntzari buruz dugun kontzepzioa eta beste garai batetakoa aski desberdinak direla. Usadiozko kontzepzioak hizkuntza *izen zerrenda edo nomenklatura* bezala ikusten zuen: gauza bakoitzari edo errealitatearen alderdi jakin bati dagokion izen-sail bezalatsu. Hizkuntzen arteko desberdintasuna, beraz, gauzak izendatzeko formen desberdintasunean funtsatzen zen eta batetatik beste batetara iragateak aurreko hitz zerrendaren gain jar zitekeen beste zerrenda betetan aldiak aldiko hitz egokia aurkitzea besterik ez zuen suposatzen. Honela bada, hitz-zerrenda berria ikastea aski zen hizkuntza berriaz jabetzeko.

Ikusmolde honen sustraiak Biblian eta Platonen *Kratilo* obran zehar aurki daitezkeela dio G. Mouninek.

Hiztegiari buruzko ikusmolde hau fonetikarenera pasatuz gero, hitz-zerrenda hura hots-zerrenda bihurtzen da. Hotsak berdinak lirateke hizkuntza guztietan, baina hizkuntza bakoitzak bere konbinaketa propioak egiten ditu hitzen forma desberdinak aditzera emateko.

Linguistika modernoak kritikatu eta desegin egin du hizkuntza ulertzeko usadiozko modu hau. De Saussure-k, adibidez, “jadanik elaboraturiko ideak, hitza baino lehenagokoak aurreuposatzen dituelako” baztertzeko du, eta aldi berean, alderantzizkoa defendatzen du, hots, “ez dagoela aurrezarrikiko idearik eta hizkuntzaren agerpena baino lehen ez dagoela ezer bestelakorik” (De Saussure, *Curso de Lingüística General*, 191).

Oraindik-orain Martinet-ek ere ildo beretik egiten du ikusmolde zaharraren kritika (6) (Martinet, *Elementos de Lingüística General*, 17).

Ikusmolde berriari bagagozkio, “linguistika moderno” “linguistika estrukturalarekin” nolabait bat eginik, beronen hasiera F. de Saussure-n obran jarri behar dugu.

Sarreratik esan dezagun, hizkuntz izaerari buruzko “ikuspen” berria ezezik “ikusuntu berri bat hautatzea” ere badela berau tratatzeko eta ikasteko, zeren eta objektua ikusteko argi berria edo sen berria baino areago baita, objektu horren beroren zenbait alderdi soilik kontutan hartzeko joera eta beste batzu sistematikoki bertan behera uztekoa; edota biak bateratsu gertatzen direla aitor genezake, ezeini lehen-tasunik eman gabe.

XIX.mendearen bukaera aldean, eta XX.aren hastapenetan oraindik ikusmolde *historiko-komparatiboa* zen nagusi: ia mende oso batetan zehar, hizkuntz zientzi autonomo bati buruz hitz egitea posible zen, “gramatikarekiko” aldeak aski argi geratu baitziren, eginkizun arauemaileari uko eginik, bai eta filologiarekikoak ere, “testu” linguistikoetatik hizkuntzetara beretara interesgunea aldatuz. Halere, zientzia jaioberri hau oraindik bere objektu berezia eta ihardunbide zehatzaren bila zebilen.

XIX.mendearen erdi aldera, 1970.urte inguruan, Whitney amerikarra eta “Jung-gramatiker” izeneko alemaniarrek hasi ziren lehenengoz hizkuntza bizi-baldintzei buruzko galderak egiten, eta berauei esker zera ikusi ahal izan zen: “hizkuntza ez dela bere kabuz garatzen den organismoa, baizik eta talde linguistikoen izpiritu kolektiboaren sorkari”.

Oinarritzko zenbait bereizketa edo zehazpen egitean sortu zen argi berria: ikas-keta deskriptiboa (sinkronia) eta historikoa (diakronia) elkarri kontrajartzean. Honek ez zuen ukatzen hizkuntzaren garapen edo hazkundea ikasteak zuen balioa, baizik eta une jakin batetan hizkuntzaren osotasuna orokorki ikastea, aurreko eta ondorengo aldakuntzak bertan behera urtzirik, guztiz zilegi zela aitortzen. Honela bada, beronen historigune bakoitzean, komunikaziorako egokia den “sistema” bat aurkitzen dugu, eta berau osotzen duen elementu bakoitza ez dugu hartu behar berez eta bere baitan den zerbait bezala, aitzitik, beste guztiekiko lotura estuan baizik.

Beste funtsezko bereizketa hizkuntza (langue) eta hizketa (parole) desberdintzetik datorrena dugu: lehena sistema linguistikoa da une jakin batetan hots, forma, adierazpen lexikal eta sintaktikoen erabilpena erregelatzen duen arau edo norma multzoa, gizarte talde batetako banakoen artean komunikatzea posible egiten duena.

Bigarrena, berriz, hizkuntzaren erabiltze konkretua da, hiztun jakinak une jakinean egiten duen hizkuntzaren bertakotzea. Hizkuntza fenomeno soziala da eta hizketaren baldintza eta arau. Hizketa gizabanakoari dagokio soilik.

Zientzia linguistiko berriaren sorreran, esan dugunez, ikuspuntuaren hautapena ere kontutan hartu behar da. Hizkuntzaren fenomenoari buruzko gogoetan, parentesi artean jartzen dira hiztuna, mezu hartzaila, esaten denaren adierazia eta adipen guztia komunikazioan erabiltzen den tresnaren deskribapenera zuzentzen da. Komunikazioa maila desberdinetan zertzen da: fonologiarenean, hiztegiarenean, gramatikarenean, sintaxiarenean etab. Maila bakoitzean antolaketa egituratu bat aurkitzen da, osagarri txikiagoz eratua, eta ondoren deskribapen estrukturalista burutzen da, zehaztasun zientifikoz zorrotzenari erantzun diezaion. Dirudienez, giza lengoaiari buruz “objektiboki” hitz egiteko modua aurkitua dugu; honez gero, hizkuntza bakoitza eraikuntza artikulatu eta erdi-mekaniko bezala har daiteke.

Hizkuntzari buruzko ikuspegi berria eta itzulpena

Hizkuntza ikusteko modu berri honek, ordea, badu zailtasunik itzulpen teoriari gagozkiorarik: adierazia (esanahia) kategoria ilunka eta nahastailatzat, beraz ez-zientifikotzat alde batera uzten delarik, itzulpenaren fenomeno deskribatzeko eta zuri bidetzeko baliakizunik gabe garatzen gara, nahiz eta izaera linguistikoa duen zerbait dela jakin. Itzulpen prozesu osoa adieraziaren eremuan gertatzen da, baina “lexiko, morfologia eta sintaxiei buruzko tesiak onartzen baditugu, itzulpena ezinezkoa

dela aitortzera iritsi beharko genuke". (Mounin, *les problèmes théoriques de la traduction*, 8).

Halere, itzulpenak egunero eta eurrez egiten dira, eta baliagarriak ezezik nahi-taezkoak gertatzen zaizkigu gaurko munduan. Zer egin beraz? G. Mouninek honela planteatzen digu dilema: "edota linguistikaren izenean ekintza itzultzailearen posibilitatea gaitzetsi (eta honela ekintza itzultzailea hurbilpenezko —gutxi gora-beherako— eragiketa ez-zientifikoen eremura zokoratu) edota ekintza itzultzailearen izenean teoria linguistikoen baliagarritasuna auzitan jarri". (Ibid, 8 s.).

Bestalde, azken 25 urteotan gertatzen ari denari begirada bat emateak ere, agian zerbait irakatsi liezaguke. Itzulpena ohizko ikaskai linguistikoen eremuan arautu eta zientzi mailako eginkizun zehatz bezala zedarritzeko ahalegin eskergak burutu dira.

Besteak beste, 1958.ean, urte berean argia ikusi zuten bi obra aipatuko ditugu: Vinay-Darbelnet, *Stylistique comparée du français et de l'anglais*, A. A. Fedorov, *Vvedenie v teoriju perevoda* (Itzulpen teoriarako sarrera). Biek aski erreakzio gogorrak jasan behar izan zituzten, zeren eta itzultzailea bera baita lehena bere egitekoa zientzia baten definizio, agian estuegi baten azpian ezartzera ez makurtzen, horretarako bere lanean erabiltzen duen artista sena baliaraziz. Itzultzailea, orohar, bere esperientzian oinarriturik, burutzen duen lan moeta hori eragiketa zientifiko baino zerbait literario, poetiko, dramatiko, erretoriko etab. bezala definitzera isuriago agertu izan ohi da.

Erizpide "behaviorista"

Bloomfield, amerikar hizkuntzalari famatuak ere, adieraziaren usadiozko nozioa alde batetara utzirik, teoria linguistiko oso bat eraikitzearekin ekin zion. Pentsamentu, kontzientzia, kontzeptu, imagina, inpresio, sentipen etab. bezalako hitzez erabat erantzen du bere hiztegia, semantika zientifikoari behar bezala egokitzen ez zitzaizkiolakoan. Hizkuntzalariak aski du seinale linguistikoekin, eta errealtate fisiologiko eta psikologikoetan ez du zertan lardaskaturik.

Halere, hizkuntza analizatzerakoan, abiapunturen bat behar duenez gero, hiztunaren eta hartzailearen portaera moldearen funtziotan deskribatu nahi du hizkuntza, eta enuntziatu linguistikoari buruz definizio "behaviorista" ematen du, "hiztunak enuntziatu hori adierazten dueneko egoera eta aldi berean, entzuleak hartatik ateratzen duen portaere-erantzuna" dela aitortzean.

Hitz edo perpausa batek zer "esan nahi" duen jakiteko hiztunaren portaera eta entzulearena, eta agian, erantzulearena hartu behar dira kontutan. Definizio hau ertzera eramanez gero, ezina dateke "hildako hizkuntza" batetatik ezer itzultzea, zeren eta beste hizkuntza parekideak desagerturik egotean eta hiztunik ez izatean, ez bailitzaiguke posible izango behinola funtzionatu zuteneko egoeratarik iristea.

Gaurregun egun erabiltzen diren hizkuntzei buruz, gauzak ez dira hain etsigarriak baina neurri handi batetan halatsu gertatzen denez gero, ezinezkoa da ulermen osoa lortzea eta ondorioz, itzulpen betegin eta asegarri bat burutzea ere. Baina itzulpenek nolabait funtzionatzen dutenez gero, *postulatu* bat sartzera beharturik aurkitzen da Bloomfield: forma linguistiko bakoitzak badu nolabaiteko izaera berezia eta nolabaiteko iraunkortasuna, kasu bakoitzean ezin demostra daitekeen arren; hiz-

kuntz talde bakoitzak baditu identikoki dirauten enuntziatuak formari ezezik edukiari dagokionean ere.

Oinarrizko hipotesi honi esker, gertakari bakar errepikaezinetatik iraupena eta izaera espezifiko dutelarik ematen diren dertakarien klasifikapenerako pausoa eman daiteke. Argi dago, postulatu honen bidez, erlatiboki bada ere, itzulpenarentzat zirrikitu bat irekitzen dela.

Labur beharrez, Bloomfield-en teoriatik itzultzaileak honako bi gauza hauek ateratu ditzake:

- a) Zerbait itzultzeak berau ongi uler dadineko egoeran jartzea ere eskatzen du.
- b) Itzulpen baten balioa ez da erizpide filologiko edo linguistiko soilen arabera neurtzen, bai eta eragiten duen portamoldearen arabera ere.

Linguistika distribuzional eta deskriptiboa

Bada oraindik, adierazia errotikago bazterturik, hizkuntza estudiatzeko egin den ahaleginik: *linguistika distribuzionala* deituarena da. Eskola honek dioenez, testu baten analisia egiteko ez da adierazitik hasi behar, alderantziz baizik: testuaren formazko analisi soilak adierazira eramaten gaitu. Gorputz linguistikoa hartu, eta erabat ezezaguna bailitzen, konbinakuntzak eta osagaien maiztasunak ikasten ditu. Beraz, metodo honen arabera, elementu formalezko konbinakuntza multzo bezala deskriba daiteke edozein hizkuntza.

Esan beharrik ez, hitz erdirik ez duela esaten distribuzionalismoak itzulpenaz, ezinezkoa baita. Hala ere, mundu formal horretatik adierazirako pausoa nolabait ematen delarik, metodoak proposatzen duenaz bestelako erizpide desberdin eta bitxi batzuren arabera gertatzen da hori. Bestalde, Mounin-ek dioenez, analisi formal erori egiterakoan nolabait baliatzen da adieraziaz ere, erabateko baztertze hori teoriko samar bilakatzen baita.

Dena den, lehen begirada batetarako, nahiz eta eskola honen irakatsia antzu samarra izan itzultzailearentzat, badu zenbait puntu baliagarri: zenbait aldiz ezinezkoa gertatzen da hitz-joko eta asonantzia batzu itzultzea elementu formalak desberdinak izatean, ondorio foniko batzuren kidea aurkitzea ere ezina delako. Pentsa adibidez, nola itzul daitekeen zenbait eslogan eta abar hizkuntza desberdinetara jatorrizkoan duen indarra galtzeke: Mounin-ek dioen “liberté, égalité, fraternité” delakoa edo Jakobson-en harako hura “*I like Ike*”.

Hjlemslev-entzat bereizketa argi bat dago “adierazpenaren substantziaren” eta “edukiaren substantziaren” artean, eta ondorioz, balio semantikoa ez dela tratamendu zientifiko batetarako gai, zerbait amorfoa denez gero. Honela bada, hizkuntzen deskribapena ezin daiteke adieraziaren deskribapen izan, bere baitan ezin ulertzukoa baita, nahiz eta hizkuntza guztietan bat bera edo berdintsua dela aitortu. Izan ere, bereziko izaterik ez du, eta beti forma desberdinetan mamiturik gertatzen edo ematen da. “Unibertsoa (...) bere baitan ezin atzemanekoa da ezaguerarentzat³³ esateraino iristen da.

Hau honela izanez gero, itzultzea ezina litzateke; baina Hjlemslev berak ere ez du adieraziaren izatea ukatzen, linguistika deskriptiboaren baitan haren izate zientifikoa ukatzera mugatzen da. Funtsean, zera nahi du: adieraziaren aurrezagupenak egi-

turen analisisa ez dezala baldintza, estudio formalaren ondoren soilik ekin dakiola adieraziarenari.

Zehaztasun asmo bezala nolabait txalogarria den hau, egitez ezina dela aitortu behar.

Mounin-ek bere *Teoria e storia della traduzione*, obran dioenez, teoria linguistiko hauen defendatzaileek xalo eta presakaegi uste izan dute adieraziari ez ikusiarena eginez lan egitea posible delakoa, eta jakina, itzulpenari dagokionean atera daitezkeen ondorioak erabat ukatzaileak dira. Izatez, ordea, ez dira hainbestekoak, zeren eta ez baitituzte kontutan hartzen semantika eta linguistika orokorraren beste sailak bereiztea posible direnako mugak. Berauen ekarri garrantzitsuenak hau da: usadiozko sasisegurtasuna kolokan jarri dute eta adieraziraino iristearen egitekoa sarritan neketsua eta gutxi gorabeherakoa baizik ez dela erakutsi dute. Beraz, itzulgarritasuna erabat ukatu ez baina, beronen mugak zehaztu egin dituzte.

Teoria neo-humboldtarrak

Wilhelm von Humboldt-ek hizkuntzari buruz “energeia” dela, ekintza eta indar sortzailea eta ez “ergon”, sorkari edo objektu esatean agian modu lauso samar batez aditzera eman nahi zuena, gerora zenbait hizkuntzalarik zehazkiago eta hertsikiago aitortu dute. Kontua ez da adieraziaren eremu berdinarean azpibanaketa egiteko hitz kopuru desberdinak erabiltze soila (eskimalek “elurra” izendatzeko edota etiopeek “gamelua” aipatzeko dituzten hitzen ugaritasuna, guk geure hizkuntzan ditugun banaka horien parean) edota ohitura gramatikal desberdinak izatea (ukapen bikoitza etab.) Arazoa besterik da: hizkuntza bakoitzak pentsatzeko modu berezia suposatzen eta ezartzen du, errealtatea ikusteko eta baloratzeko era jakin bat, egiazko “Weltanschauung” bat.

B. L. Whorf, alemaniarrenaz bestelako bidetik, bere hipotesi ezaguna gorpuztera iritsi zen. Amerindiar hizkuntzak ikasten ihardun ondoren, munduari buruz izan uste dugun esperientziaren forma gure hizkuntza horrek ematen digula aitortzeraino heldu zen. “Aurretiaz gure ama-hizkuntzak ezarritako zuinen arabera ebakitzen dugu natura. Hizkuntza oro esperientzia kategorizatze bitarteko bat da. Jen-deak pentsatzen eta sentitzen duena eta bere pentsamena eta sentimena aditzera emateko modua gizabanakoaren baldintza fisiologikoak determinatzen du zalantzarik gabe, bakoitzaren historiak eta kanpoko munduan gertatu ere gertatzen den horrek. Baina ahanltzi izan ohi den faktore batek ere determinatzen du, hau da, gizarte jakin batetan partaide garen aldetik, lortu dugun hizkuntz ohiturazko ereduak ere bai”.

“Whorf-en hipotesi” hau eztabaidatua izan bada ere, gaurregun ia orokorki onartzen da hizkuntzari buruzko ikuspuntu neo-humboldtian hau.

Itzulpenari dagokionean, argi dago eritzi honetatik heriobidea besterik ez zaiola irekitzen, zeren eta munduari buruzko ikuspegi desberdinak dituzten hizkuntzen artean itzulpenak ez bailuke zentzurik.

G. Mounin eta Z. S. Harris-ek hiru eratako argudioak ikusten dituzte teoria neo-humboldtian hauek defendatzen dutenari alde:

a) Ezin-aldatuzko gertaera fisiko bera hizkuntz egitura desberdinen bidez adierazten da.

b) Pertsona baten munduari buruzko esperientzia arras ugaria eta aldakorra den bitartean, hizkuntza aski aldagaitz gertatzen da. Badirudi, hizkuntza nolabaiteko autonomiaren jabe dela errealitatearekiko, eta bien artean ez dela bapateko egokitze zehatzik.

c) Sarritan ezina gertatzen da sentimentalki nabaritzen duguna hizkuntza bidez aditzera ematea; edonork du barne bizitzaren eta hizkuntz tresnaren arteko desberdintasun koska horri buruzko esperientzia.

Argi dago argudio hauek badutela garrantzizko zeresanik itzultzailearentzat. Itzulpen lanean zerbait ibili denak badu arazo hauen berri, argiago edo lausokiago. Hizkuntzalariei esker, zientzi maila zehatz batetan definiturik geratu da *beti dena* itzultzea posible ez delakoa. Ekarrri hau benetan osasungarria zaio itzultzaileari, bere egitekoaren muga non dagoen aldeaurretik jakin dezan eta ezinaren aurka ostikoka ibil ez dadin.

Ondorio gisa

Esanak esan, azken aldiotako linguistikaren arabera, jadanik ezin lekiokio euts beti eta edozer itzul litekeelako uste arinari. Gaur oinarri zientifikoz dakigu zenbait enuntziatu hizkuntzaz aldatzean, informazio tasari dagokionean punturen batzu galteraz erremediogabeki beharturik dagoela.

Baina, alderantziz, ez da egiazko inoiz ezer itzul ezin daitekeelazko eritzi pesimista ere. Gaurko linguistikak, badirudi hizkuntza arteko komunikapenari buruz ikuspegi dialektiko bat eskaintzen duela. Oinarri orokor gotorrak dituen ahalbide konkretora da itzulpena, baijan egintza historiko ere badenez gero, praktikaren bidez etengabe hobe daitekeen zerbait da. Ez daude behin betirako definiturik hizkuntza batek bere baitako errekurtsuez baliatzeko dituen aukerak eta egitura desberdinen laguntzaz bada ere, beste hizkuntza batez esanaren helmen semantikoa birsortzeko.

Nolabait esateko, gaurregun ez da posible Leizarraga eta Orixeren erara itzultzea, nola hizkuntza hala mezu hartzailea, biak aldatuz baitoaz. Harako “traduttore traditore” hura neurri batetan egia delarik, itzultzaileak adi egon behar du bihurtzen ari den textura, iruzur egiteko arriskuaren beldurrez, baina, bestalde, egitura linguistikoaren komunikaezintasunezko tesia, egiazki komunikagaiztasuna baizik ez dela ere ez du aherentzi behar.

Hizkuntzak, bata bestearekiko aski desberdinak direlarik ere, era berean uste baino antzekoagoak ere badira, “unibertsalen” bila ari direnek irakatsiaren arabera. Itzultzaileak jakin beharrekoa du “mundu ikuskera” berezia ez dela hainbestearaino gramatikazko edo sintaxiazko egituratan adierazten, baizik eta frase enuntziapenetan, eta maila honetan hizkuntza guztiek eskaintzen dituzte itzulpen aski leialak –gutxigorabeherakoak bezain praktikakoak– burutzeko ahalbide eta itenbideak. “Gizona (nahiz zuri, nahiz beltz, nahiz hori) gizon den bezalaxe, giza hizkuntza ere ez da, funtsez, gisa hizkuntza baizik alde eta aldi oro, nahiz axaleko ñabardurez bereiz ager dadin” (Mitxelena).

Beraz, J. C. Catford-ek aitortzen duen bezala, “any theory of translation must draw upon a theory of language - a general linguistic theory” itzulpenak badu zerika-

sirik linguistikaren alorretik, heldutasun maila batetan aritu nahi baldin badu, eta horretan saiatu beharko du mugak ere badituela jakinararen gainean eta etsipenezko alantre-haginetan katigaturik denbora gehiegi galdu gabe.

ITZULPENA, LEIALTASUNA ETA BALIOKIDETZA

Edozein testu itzuli nahi duenaren aurrez-aurre, bi joera moeta desberdinetako bideak irekitzen zaizkio, funtsean: baliokidetza *formalaren* ildotik doana eta *dinamikoarenetik* doana.

Itzultzeko bide bakar bat ez dagoelarik, sarritan sortzen diren zailtasunak hautakizunezkoak izan ohi dira. Gauza bat eta bera bizpahiru modutara itzul daitekeela ikusten du sarritan itzultzaileak. Nondik jo eta zergaitik?

Theodore Savory-k ezkaintzen digun abiaburu zerrendaren arabera garbi ikus daiteke itzultzerakoan inoiz ez dela erregela edo arau zehatzik izan eta joera desberdinen aldekoak agertu izan direla alor honetan:

1. itzulpenak jatorrizko hizkuntzako hitzak itzuli behar ditu.
2. itzulpenak jatorrizko ideak itzuli behar ditu.
3. itzulpenak jatorrizko obraren kutsua izan behar du.
4. itzulpenak itzulpen kutsua izan behar du.
5. itzulpenak jatorrizko estiloa isladatu behar du.
6. itzulpenak itzultzailearen estiloa izan behar du.
7. itzulpenak jatorrizkoaren garaiko kutsua izan behar du.
8. itzulpenak itzultzailearen garaiko kutsua izan behar du.
9. itzulpenak jatorrizkoari zerbait erants nahiz ken diezaioke.
10. itzulpenak ezin diezaioke ezer ken, ez erants jatorrizkoari.
11. poesiaren itzulpena prosak egin behar da.
12. poesiaren itzulpena bertsoz egin behar da.

(Savory, *The art of translation*, 50.or.)

Zerrenda honetan agiri diren baieztapen kontraesankorretatik garbi ikusten da, gauzak larriki harturik, alderantzizko bi joera nagusi nabarmentzen direla: jatorrizko textua eredu eta erreferentzi puntu bakartzat hartzen duena, eta orainaldia arau beazla hartzen duena, itzultzailea, irakurlea etab. ardatz direla. "*Zu brüderlichem Andenken Wielands*" obran Goethe bera joera bikoitz honetaz jabeturik zegoela agertzen da.

1922.ean, J. P. Postgate, bere *Translation and Translations* obran, itzulpen joerei dagokionean bi itzulpen moeta nagusi kontutan hartu beharraz mintzo da: *retrospektiboa* edo *hartzailea* (autorea eta jatorrizko textua batipat kontutan hartzen dituztenen saila); *prospektiboa* edo *egokitzailea* (irakurleaz gehienbat arduratzen direnen saila).

Baliokidetza formala

Eugene Nida da zalantzarik gabe arazoa gehien zehaztu duena bere *Toward a science of translating* (1964) obran, eta baliokidetza formala eta dinamikoaren arteko mugak argien zedarritu dituen.

Lehen kasuan, baliokidetza formalarenean, ahalegin guztiak jatorrizkora zuzentzen dira eta huraxe alderdi guztietatik birsortzen saiatzen da itzulpena. Ahal den neurri guztian, jatorrizko elementu guztiak mantentzen ahalegintzan da; izenari izenez, aditzari aditzez, etab. erantzunez. Periodo, frase eta perpaus bakoitzaren osotasunari eusten saiatzen da; jatorrizko batasunak ez dira birmoldatzen eta puntuaketa bera ere ahalik eta gehien errespetatzen da.

Hiztegi bera ere jatorrizkoaren kidekoena izan dadin saiatzen da, beti baliokide berdinez itzultzen delarik. Modismoak ere birsortu egiten dira ahalik eta literalkien, berauen balio semantiko orokorra kontutan hartu gabe eta bigarren hizkuntzak posible egiten duen neurri osoan. Prosazko testua beti prosaz ematen da, eta poesia neurtua, bertsoz, metrika bera ere errespetatuz. Zenbait kasutan itzulpen grafologikoraino hurbiltzen da joera hau.

Argi dago itzulpen joera honen alde ona: hauxe da autorearen eta garaiairen baitan murgiltzeko beste erarik ez duenarentzat biderik egokiena, eta jatorrizko kulturaren zenbait alderdiz jabetzeko aukera. Prozedura hau, beraz, neurri baten barruan legezkotzat jo daiteke aurrez ezarritako helburu horri erantzuten dion heinean eta itzulpenaren ulergaiztasuna handiegia gertatzen ez bada behintzat. Jakina, era honetako itzulpena ezosoa eta oso mugatua gertatzen da eta sarrera on batez edota orri-barreneko ohar ugariz hornitu behar izaten da "ulergaiztasun tasa" eraisteko.

Esan beharrik ez dago, ideal guztizko bezala ezina dela baliokidetza formala, azken ondoriotaraino eraman ahal izateko eragozpen nabarmenak daudenez gero (fonetikoak, adibidez); alderdi formal batzu kontutan hartzeak, beste batzu alde batetara uztea eskatzen du sarritan.

Baliokidetza dinamikoa

Baliokidetza dinamikoaren kasuan, aldiz, gauzak bestetara gertatzen dira: irakurleari erabat prestatutik eskaintzen zaio otordua. Horrela bada, jatorrizko testuaren hartzailea zegoeneko baldintza berberetan jarri bahi badugu testu itzuliaren hartzailea, testu horren transformazio sakon samar baten bidez soilik gerta daiteke hori. Hona zer dioten Postgate-k:

"Adibidez, frantsesetik ingeleserako itzulpen batek frantsesezko jatorrizkoak irakurle frantsesarengan sortera ziuen inpresioaren ahalik eta antzekoena birsortu behar du."

Arau orokorra hau baldin bada, mezuak hartzailearengan izango duen ondorioa beti kontutan beharko du itzultzaileak, itzulgaiaren benetako esanahiaren balioa atzeman dadin eta egiazki baliokidea izango den testua presta dadin. Kasu honetan, baliokidetza ez da formazkoa, baizik eta ondorioen baliokidetzatik neurtzen dena. Beraz, kulturazko bitartea gainditu eta irakurle berriarentzat "jatorra" izango den zerbait moldatu behar du itzultzaileak, hartzailearen *hizkuntza eta kulturara* ez ezik, *mezuaren testuingurura* eta *hartzailearengana* ere egokituz edo moldatuz.

Gramatika jariakorki erabili behar da, izenaren ordeiz izenordea nahiz aditza erabiliko da, sintaxiazko batasunak hautsi eta birmoldatu egingo dira, hiztegiak baliokide formalak alde batetara utzi eta kulturazko baliokideak aurkitu beharko dira, modismoak balio semantiko orokorraren arabera itzuliko dira. Bestalde, balio

konnotatiboak eta lengoia maila desberdinak ere kontutan hartuko ditu honela itzulpenak.

Baina aurreko joerak bezala, honek ere baditu bere mugak. Nork balora dezake bi texturen arteko benetako baliokidetzat? Postgateren eritziz, itzultzaile trebatua da epailari hori, baina definizio honek zama behaviorista handiegia du objektibotasun maila batetan jarri ahal izateko eta konparaketak egiteko. Bestalde, bi testu aski desberdinek ondorio berdintsuak sortera litzateke, halere horrek ez du esan nahi bata bestearen itzulpen denik. Gainera, nor da testu baten “jatorrizko hartzailea”? Idazlearekiko hurbiltasun kronologiko eta espazialezko erizpidea aski lausoa da. Ez da egia testu bat beti egilearen garaikoentzat soilik egina izan delakoa.

Azkenik, itzulpenaren hartzaileak beti du, gutxi-asko, textuari buruzko ezagupena eta ezin dezake bere garaian sortutako jatorrizko beste testu baten aurrean harlezakeen jarrera berdina, eta ondorioz ez eta erreakzio berdina izan ere.

Ondorio gisa, zera esan dezakegu; B. D. delako joera ertzeraino eramateak jatorrizko textuaren izatasun historikoa guttiestera edo ahaztera bultza gintzake. Textua eguneratzeak koloregabetzea eta zaporegabetzea suposatzen du, eta nolabait jatorrizkoaz bestelako zerbait bilakatzen.

B. F.-ak, aldiz, historikotasuna salbatzen du baina zurrunduz edo izoztuz, eta gauza arkeologiko gisa tratatuz. Batak jatorrizko giroa edo balioa baztertuz, salbatzen du testua, zegoen-zegoenean itzulpen baltsamoztatzaile baten bitartez; besteak, aitzitik, testua bera guttiesten du jatorrizko giroaren balioa salbatzeko, itzulpen idea, sentimendu eta esperientzi eskuratze soil bihurtuz, baina ez *testu* eskuratze. Bata “formaz” gehiegi arduratzen den bitartean, bestea “edukiaz” liluratzen da, eta *testua* ez da ezer bi alderdi hauek erabat bata bestetik erantziz gero.

Honetan ere, itzulpena eta linguistikaren arteko auziaz ari izan garenean bezala, gauzak berezi egin beharko direla esan behar. Leizarragak eta Orixek, biek dute nola-baiteko arrazoia baina ez osoa: itzulpenaren zertarakoa, norentzakoa, nolakoa etab. beti kontutan hartu behar da. Carlos Buzzetti-k dioenez, itzulpenarekin gaztararoekin gertatzen dena bera gertatzen zaigu: inork ez du ukatzen gaztaroa badenik, baina inork ez daki zehazki noiz hasten edo bukatzen den. Eta Nida-k arrazoia du zera esatean, “itzulpenari buruzko definizioak gai honetaz arduratzen diren pertsonak bezain ugariak eta desberdinak direla”.

Anbiguitate honek iturburu bikoitza du: batentzat itzulpena ez dena beste batek “itzulpen” deitzea, ertzeko kasutan gerta ohi denez.

Eta, tartean, berriz, batentzat ona, egokia den “itzulpena”, beste batentzat eskasa, lardaska baizik ez da. Sarritan, zera ahazten da, testu bat itzultzeko modu edo era bakarrik ez dagoela eta itzulpen jakin batek ahalbide askoren artean bat aukeratzea, eta beste asko alde batetara uztea esan nahi duela.

Honetan, zer esan handia du mezuaeren nolakotasunak, itzultzailearen xedeak eta mezu hartzaileen nortasun eta baldintzek.

LITERATUR TEXTUAK ETA ITZULPENA

Hiztunaren eta aldian aldiko premietara egokitzen den tresnatzat har daiteke hizkuntza. Edozein enuntziapenetan, nolabait esan, hiru protagonistarekin topo egi-

ten dugu: "gauzekin", hiztunarekin eta hartzailearekin. Hizkuntzaren erabilpena aldatu ahala, hiru hauen arteko harremana ere aldatu egiten da.

Hitz egitean "gauza" azpimarkatzen bada, hau da, hiztunaz eta hartzaileaz kanpo dagoen zerbait hori, eginkizun deskribatzailea, *informatiboa* izendatzen diogu hizkuntzari.

"Gauza" hori, aldiz, subjektuarekin bat egitera jotzen denean, barne-mundua, asmo eta sentipenak adieraziz, hizkuntza *expresio bide* bilakatzen da.

Azkenik, hartzailea bera enuntziapenaren objektu denean, hizkuntza eragile, zirikatzaille bihurtzen da eta funtzio apelatibo edo konatiboan erabiltzen da.

Hizkuntz funtzioei buruzko banaketa hau gutxigorabeherakoa da eta haez gainera bada besterik, noski, baina gure kasu honetarako aski da esandakoaz.

Adibidetara joz gero, testu zientifiko-positiboak eta informatiboak lehen sailean sartuko lirakeke, poesia lirikoa bigarrenetan eta hitzaldi, mitin eta antzekoak hirugarrenean. Beraz, testu bat ongi ulertzeko beharrezkoa da nagusiki zer funtzio duen igartzea: botaniko edo meteorologo begiz poesia lirikoa irakurtzeak ez luke zentzurik.

Banaketa honetan funtsaturik hitz egiten da itzulpenaren munduan testu *teknikoez* eta *literarioez*.

Konnotazioak

Hizkuntzalariek, hizkuntzaren erabilpenaz arduratzean, luzaro mugatu zuten beren iharduna textuaren baitan aurki daitezkeen elementu logikoetara: gainerakoak, pentsamentu razionalaren zuin barruan sartzen ez zirenak ukatzen ez zituzten arren, artearen eskutan uzten zituzten eraskin edo gehigarri bailiren.

Itzultzaileek, aldiz, beti izan dituzte kontutan gutxiasko honelako faktoreak: esanahi logikoez gainera ñabardurak, kolorazioak, tonalitateak etab. ere gogoan eduki ohi zituzten.

Charles Bally, De Saussure-n ikaslea, izan zen lehendabizikoz arazo hau argitzeko lehen pausoa eman zuenetariko bat, lengoia *afektiboa* eta *intelektuala* bereziz, nahiz eta bien arteko harremana gehiegi sakondu ez zuen.

E. Sapir-ek ere burutu zuen *hitzen zentzu afektiboari* buruzko estudio bat, ondorio negatibo samarrak ateraz. Bloomfield-ek, alderantziz, garrantzizko maila aitortzen die "balio afektiboari", adieraziari buruzko kontzeptuaren definizioan sarrazteraino. Bloomfield-ek *denotazioaz* eta *konnotazioaz* ere hitz egiten du, eta beronen eritzien inguruan sortu zen eztabaidari esker, hizkuntzalariek eta psikologoak bat etorri ziren hizkuntz batasun desberdinen adierazian dimentsio "subjektiboak" daukelakoari buruz.

Itzulpenari buruz duen zerikusiaz gogoetak egiten hasi aurretik, zera esan dezagun, alegia, hiztunaren eta hartzailearen aldetiko kutsatze subjektibizatzaile hau maila eta modu desberdinetan gertatzen dela: mimika mailan, fonologi mailan, hizkuntz gertakari formalen mailan eta batez ere, lexikoaren mailan.

Bestalde, alderdi konnotatibo batzu inolako aldakuntza linguistiko, fonetiko, morfologiko edo lexikalik gabe ager daitezke, egoera edo testuinguruaren aldatze soilez.

Azkenik, textuaren balio estetikoari darizkion konnotazioak ere baditugu, defingaitzak bezain egiazkoak direnak. Hizkuntzalariak akordio batetara iristen ez diren arren, egileak sortu eta hartzaileari eragiten dioten neurrian, adierazi globalaren elementutzat har daitezke zinetan.

Balio hau ez dago alderdi linguistiko jakin bati loturik, osotasunari baizik: badu zerikusirik hots, hiztegi, morfosintaxia, imajinen erabilpen, literatur genero, metrika eta abarrekin... baina, hala ere, faktore guzti hauen batuketa gaintitu egiten du.

Banaketa baten azken puntu honetaz ari garelarik, enuntziatuen adiera nolabait mugatzen duten "funtzio" desberdinez gainera, hizkuntzak baditu genero edo maila desberdin batzu ere: hiru mailaz hitz egiten da: *hizkuntz arruntaz*, *teknikoaz* eta *literarioaz*.

Batzutan textua maila hauetariko batetan ia erabat egon daiteke, baina textu luze eta konplexu samarra baldin bada, maila desberdinok nahasturik ager daitezke.

Maila arrunt eta teknikoak, itzulpenaren aldetik, ez dute arazo bereziegirik planteatzen, hizkuntz maila arruntean konnotazioen garrantzia aski handia dela esanez gero. Baina garrantzi hau erabakitzailea eta nagusikor bihurtzen da maila literarioari dagokionean.

Itzulpenaz ari garelarik, sortzen den galdera hau da: konnotazioak eta berezitasun estetiko-literarioak itzul daitezke eta nola?

Funtsean, pertsonarteko komunikazioa posible den ala ez planteatzera garama-ika arazo honek. Komunikazio erabatekoa ez baina erlatiboa —hala ere benetakoa— lorgarria dela aitortzen dugun heinean, konnotazioen itzulpena ere, mugatuki bada ere, posible dela esan behar da, orokortasun eta gizartetasun maila baten jabe direnez gero.

Solipsismo linguistikoak hesi gogorak ezarri dizkio ahalbide honi, I. A. Richards-e kasua lekuko: "Eduki ote ditzakegu, geure izpirituan bata bestetik hain urrunduak diren ingelesa eta txinarra bezalako bi mundu ikuskera adierazten dituzten hizkuntzoi dagozkien bi pentsaera-sistema, bien arteko kutsatzerik gabe, kutsadura hori, beraz, bi pentsaera sistema horien eredian tartekatzen delarik? Bitartekotza horrek ez ote du behar beste hirugarren pentsaera sistemaren bat aurreko biak barnean hartzeko bezain orokor eta besarkatzailea? Richards-ek honela planteatuari negatiboki erantzuten dio, hots, itzuli ordez moldatu besterik ez genukeela egingo esanez. Richards-en zalantza eta ukakortasuna hausten duen froga eguneroko gizarte-praktikak ematen digu: ingeles-txinerazko elebidunak bere enuntziapenen bitartez erantzun zuzenak eragitea lortzen du txineraz mintzatzen zaizkionengan. Beraz, gerora, bere obran batetan, *Towards a theory of translation*, dionez, "adiera pertsonalen arteko desberdintasunak gutxitzeko ahalegin kolektiboa dela hizkuntza" aitor genezake, eta ondorioz, komunikamenari eskatzen zaion baino gehiagorik ezin lekiokela eska itzulpenari konnotazioz mamituriko literatur textua bihurtzerakoan.

ITZULPENARI BURUZKO BIBLIOGRAFIAZ

Hain ezaguna eta arautua ez den alor honetarako gure artean ezer gutxi dago UZEI eta Elhuyar taldeen inguruan bildu den esperientziaz eta noizbehinka agertu izan den artikuluren bat edo beste salbu.

Gaztelaniaz ere ezer gutxi aurki daiteke. G. Mounin-en *Los Problemas Teóricos de la Traducción*, Gredosek argitaratua, C. Buzzetti-ren *Traducir la palabra*, Nida-Taber-en *Teoría y Práctica de la Traducción* eta Alonso-Zorro-ren *La Traducción bíblica* salbu. Itzultzaile Eskolak oinarritzko bibliografia bat behar-beharrezkoa duenez gero, hona hemen sail nagusi batzuren arabera, premiazko titulu batzuren zerrenda. Hauetariko zenbait jadanik eskaturik daude eta Euskaltzaindiaren eta Itzultzaile Eskolaren liburu hondoak aberastera pasatuko dira.

1. Itzulpenaren hazkunde edo garapenari buruz*

Carry, Edmond, *La traduction dans le monde moderne*, Gèneve, 1956.

Larband, Valery, *Sous l'invocation de Saint Jérôme*, Paris, 1964.

Mounin, Georges, *Teoria e Storia della Traduzione*, Torino, 1965.

Mounin, Georges, *Les belles infidèles*, Paris, 1955.

2. Itzultzaileen usadiozko esperientziari buruz

Babel, Itzulpenari buruzko nazioarteko aldizkaria, 1955.urteaz geroztik hiru hilabetero argitaratzen da Bonn-en, eta nazioarteko bibliografiak honririturik dator.

Le Bulletin Signalétique du C.N.R.S. delakoak "Problèmes de la traduction" rubrikapen, bibliografia ugari eskaini du 1955.urteaz geroztik, itzulpenaren historia eta teoriari buruz.

* * *

Aurreko sailean aipaturiko liburuez gain aipagarria dateke beste haue ere:

Mounin, Georges: *La traduction devient-elle un problème de premier plan?* Critique, 127, 1959, 1056 eta ondoko orrialdeak.

Sobietar itzultzaileen esperientziaz:

Meynieux, André: *Les traducteurs en Russie avant Pouchkine*, Babel, III, 2, 1957, 73-79.or.

Fedorov, Andrej: *Vvdenie v teoriju perevoda*, Mosku, 1953.

Estatu Batuetako itzultzaileen esperientziaz:

Nida, Eugene A. *Linguistics and Ethnology in Translations Problems*, Word, 2, 1945, 194-208.or.

Nida, Eugene A. *God's Word in Man's Language*, New York, 1952.

* Oharra: Bada 1947 urteaz geroztik urtero argitaratzen den *Index Translationum* delakoa ere.

Nida, Eugene A. *Message and Mission*, New York, 1960.
 Nida, Eugene A. *Toward a Science of Translating*, Leyde, 1954.

Kanadiar Itzultzaileen esperientziaz:

Vinay-Darbelnet, *Stylistique comparée du français et de l'anglais*, Paris, 1958.

Talde lanak:

Brower E. A. (editoreak), *On translation*, Harvard, 1959.
 Abrowsmith-Shattuck, *The Craft and Context on Translation*, Austin, 1961.

3. Itzulpen automatikoari buruz

Aldizkariak: Mechanical Translation (Harvard)
 La traduction automatique (Paris)
 Машиный перевод і прикладнаа лингвистика (Mosku)

4. Bibliaren itzulpenari buruz

Buzzetti, Carlo, *Traducir la palabra*, Estella, 1976.
 Robertson, E. H., *The new translations of the bible*, London, 1959.
 Rüthy, A. E. *Probleme der Bibelübersetzung*, Bern, 1959.
 Schwarz W., *Principles and problems of biblical translation*, Cambridge, 1955.

5. Itzulpenaren teoriari buruz

Italiaander, Rolf, *Übersetzen*, Frankfurt, 1965.
 Catford, J. C. *A linguistic theory of translation*, London, 1969.
 Fedorov, Andrej, *Vvdenie v teoriju perevoda*, Mosku, 1953.
 Taber, C. R. - Nida E., *La traduction; théorie et méthode*, London, 1971.
 Störig, H. J. (ed.) *Das Problem des Übersetzens*, Darmstadt, 1969.
 Mounin, G. *Los problemas teóricos de la traducción*, Madrid, 1977.
 Hartmann, P. - Vernay, H., *Sprachwissenschaft und Übersetzen*, München, 1970.
 Güttinger, Fritz, *Zielsprache. Theorie und Technik des Übersetzens*, Zürich, 1963.
 Levý Jiří. *Die literarische Übersetzung*, Frankfurt, 1969.

6. Itzultzaile eta interpretarien prestakuntzaz

Bäse, Hans-Jürgen (Ed.), *Begegnung zwischen Praxis und Lehre. Die Ausbildung zum Übersetzer und Dolmetscher*, Wiesbaden, 1970.
 Drescher, Horst W. - Signe Scheffzek (Ed.), *Theorie und Praxis des Übersetzens und Dolmetschens*, Bern/Frankfurt, 1976.
 Kapp, Volker (Ed.), *Übersetzer und Dolmetscher* (UBT 325).

EUSKAL BIBLIOGRAFIA

Oharra. Hemen eskaintzen dugun artikulua zerrenda hau zuzenki itzulpenari buruzkoa ez bada ere, itzulpenarekin zerikusia duen heinean interesgarria dela-koan sartzen dugu sail honetan.

Zalbide, M. *Zientzi eta Teknikarako Hizkuntzaz*, Elhuyar, 2 zenb., 1975, III, 36-48.or.

Zalbide, M. *Bibliografi Eranskinak*, Elhuyar, 3. zenb., 1975, VI, 53-54.or.

Etxebarria, J. R. *Euskara Teknikoari Buruzko Eritzi Batzu*, Elhuyar, 4. zenb., 1975, IX, 37-49.or.

Etxebarria, J. R. *Euskara Teknikoari Buruzko Eritzi Batzu*, (jarraip.) Elhuyar, 5. zenb., 1975, XII, 35-51.or.

Etxebarria, J. R. *Euskara Teknikoari Buruzko Eritzi Batzu*, (jarraip.) Elhuyar, 6. zenb., 1976, III, 51-60.or.

Eguzkitza, A. *Danobat Tekniko-Industrial Hiztegia*. Elhuyar, 8. zenb., 1976, IX, 3-8 or.

Zalbide, M. *Egungo Ikastextu eta Hiztegiezko bibliografia*, Elhuyar, 8. zenb., 1976, IX, 59-63.or.

Zalbide, M. *Zientzi eta Teknika Hizkuntzarako Proposamenak*, Elhuyar, 9. zenb., 1976, XII, 27-52.or.

Sarasola, I. *Atzizki-Egitura Baten Bilakaeraz*, Elhuyar, 10 zenb., 1977, III, 63-68 or.

X. X. *Arkitektura Hiztegia*, Elhuyar, 12 zenb., 1977, IX, 1-9.or.

Ibinagabeitia, A. "*Orixe*" *Euskeratzalle*, Orixe-Omenaldi, 1965, Donostia, 87-117.or.

Altuna, P. "*Orixe*" *Itzorkunlari*, Orixe-Omenaldi, 1965, Donostia, 235-247.or.

Batzuk *Hiztegia*, Euskera XXII, 2 aldia, 1977, Bilbo (separata).

Eguzkitza, A. *Ahaidetasunaren arlo semantikoa euskaraz*, Fontes 27.-zenb., XI-XII, 1977, 419-429.or.

Villasante, L. *Euskara Idatziaren Joskera*, Fontes, 18. zenb., XI-XII, 1974, 325-342.or.

- 1975 B. Estornés Lasa { *Auñamendiko Erdal-Euskal iztegia 1965/1975.*
- 1975 J. I. Goikoetxea { *Diccionario Auñamendi Español-Vasco****
- 1975 Elkar lanean *Bizi lurrean*** (Donostia)
- 1975 Askoren Artean { *Deba; Euskal kosta nuklearra*** (Donostia)
- 1975 P. Urkizu { *Deba; Euskal kosta nuklearra*** (Donostia)
- 1975 P. R. Bera *Diccionario castellano-vasco* (Donostia)
- 1975 A. Gómez Segura *Edurne eta 7 gizatxoak*** (Bilbao)
- 1975 R. Armangué { *Eguneroko gauzak II*** (Bilbao)
- 1975 X. Mendiguren { *Eguneroko gauzak II*** (Bilbao)
- 1975 Saduco-García Sánchez { *Eguzkia naiz* (Madrid-Donostia)
- 1975 J. F. Lecea, J. A. Agirre { *Eguzkia naiz* (Madrid-Donostia)
- 1975 J. Kerexeta *Eliz-guraso apostolikuak*** (Bilbao)
- 1975 J. Garmendia *Euskal esku langintza/Artesanía vasca V****
(Donostia)
- 1975 F. Zavala/Jakin *Euskal Herriaren Historia II* (Arantzazu-Bilbao)
- 1975 Sollube *Euskalerrria I****

- 1975 X. X. *F. Engels-en bi obra* (Sozialismoaren aurrerabidea. Utopiatik Zientziara/Ludwig Feurrback eta aleman filosofia Klasikoaren amaiera)** (Hendaia)
- 1975 Elkar lanean *Garraioa***
- 1975 G. I. B. *Gida liburua* (4) (Madrid)
- 1975 G. I. B. *Gida liburua* I (Madrid)
- 1975 G. I. B. *Gida liburua* II (Madrid)
- 1975 Saduco-García Sánchez { *Harkaitz bat naiz* (Madrid-Donostia)
- 1975 J. F. Lecea, J. A. Agirre {
- 1975 Saduco-García Sánchez { *Haur bat naiz* (Madrid-Donostia)
- 1975 J. F. Lecea, J. A. Agirre {
- 1975 J. Ecker/J. F. Setién *Hauraren Biblia* (Lizarra)
- 1975 J. Spyri/X. Mendiguren *Heidi*** (Bilbao)
- 1975 Liturgiacio itzultzaile { *Jesu-Kristoren berri ona; Ebanjelioak eta apos-*
taldea { *toluen egintzak* (Beloke)
- 1975 A. Gómez Segura *Katu botaduna*** (Bilbao)
- 1975 Elkar lanean *Kirolak eta ikuskariak*** (Donostia)
- 1975 J. A. Orbegozo *Kosmos* (1)** (Salamanca)
- 1975 J. A. Orbegozo *Kosmos* (2)** (Salamanca)
- 1975 A. Albisu eta beste *Kosmos* (3)** (Salamanca)
- 1975 Nimegako katekesi *Kristau bidea*** (Arantzazu)
- instituta/**Jakin**
- 1975 J. Chumilla/ *Kristau ikasbidea* (3) (Madrid)
- J. Gaztañaga/
S. Garmendia
- 1975 Sec. Nac. catequético { *Kristau ikasbidea* (4) (gipuzkeraz)
- A. Zugasti {
- 1975 Sec. Nac. Catequético { *Kristau ikasbidea* (4) (Euskara batuan)
- 1975 Kristau ikasbide { *Kristau ikasbidea* (4)** (Donostia-Iruinea)
- idazkaritza {
- 1975 Sec. Nac. Catequético *Kristau ikasbidea* (5) (Madrid)
- 1975 T. Chumillas/ { *Kristau ikasbidea* E. G. B. (Laugarren maila)**
- S. Garmendia/J. Agirre { (Madrid)
- 1975 T. Chumillas/ { *Kristau ikasbidea* EGB (Bosgarren maila)**
- S. Garmendia/J. Agirre { (Madrid)
- 1975 (S. Onaindia) *Las cien poesías amoratorias de la lengua vasca*
(Antologia)* (Bilbao)
- 1975 Jesús Altuna *Lehen Euskal Herria****
(Bilbao)
- 1975 Lizardi/S. Aizarna *Lizardi**** (Donostia)
- A. M. Labaien
- 1975 A. Gómez Segura *Loti ederra*** (Bilbao)
- 1975 Askoren artean/G. I. E. *Matematika* (2) EGB (Barcelona)
- 1975 Askoren artean/G. I. E. *Matematika* (3) EGB (Barcelona)
- 1975 Askoren artean/G. I. E. *Matematika* (4) EGB (Barcelona)
- 1975 Askoren artean/G. I. E. *Matematika* (5) EGB (Barcelona)
- 1975 B. Estornés Lasa *Mundua Euskal-Erriaren gogoan/El mundo en*
*la mente popular vasca VI****
(Donostia)

1975	C. A. Cornejo/ M. Etxaniz J. Larrañaga	{ <i>Muntxausengo baroia**</i> (Donostia)
1975	I. Sollube	<i>Ona emen gure lurra/He aquí nuestra tierra*/***</i> (Donostia)
1975	Saduco-Garcia Sánchez J. A. Agirre	<i>Pizti bat naiz</i> (Madrid-Donostia)
1975	Platón/J. Zaitegi	<i>Platon-1 Oturuntza, Protagora, Menon**</i> (Arrasate)
1975	IKER	<i>Saioka/2</i> (Projektuak eta gaiak) (Bilbao)
1975	IKER	<i>Saioka/3</i> (Osagarriak eta ariketak) (Bilbao)
1975	IKER	<i>Saioka/3</i> (Projektuak eta gaiak)-1 (Bilbao)
1975	IKER	<i>Saioka/3</i> (Projektuak eta gaiak)-2 (Bilbao)
1975	IKER	<i>Saioka/3</i> (Osagarriak eta ariketak)-1 (Bilbao)
1975	IKER	<i>Saioka/3</i> (Osagaiak eta ariketak)-2 (Bilbao)
1975	Saduco-Garcia Sánchez J. F. Lezea, J. A. Agirre	{ <i>Sua naiz</i> (Madrid-Donostia)
1975	Saduco-Garcia Sánchez J. F. Lezea, J. A. Agirre	{ <i>Txori bat naiz</i> (Madrid-Donostia)
1975	Elkar lanean	<i>Unibertsoa**</i> (Donostia)
1975	Saduco-Garcia Sánchez Lecea, J. A. Agirre	{ <i>Ur tanto bat naiz</i> (Madrid)
1975	A. Gómez Segura	<i>Xano gorritxo**</i> (Bilbao)
1975	Grimm anaiak	<i>Zenizienta**</i> (Bilbao)
1976	Askoren artean	<i>Asmakizunak eta aurkikuntzak**</i> (Donostia)
1976	Gosciny/G. Aresti J. M. Arrieta	{ <i>Asterix. Buruzagien burruka**</i> (Donostia)
1976	Gosciny/G. Aresti J. M. Arrieta	{ <i>Asterix-en ibilaldiak**</i> (Donostia)
1976	Gosciny/G. Aresti J. M. Arrieta	{ <i>Asterix eta Kleopatra**</i> (Donostia)
1976	Gosciny/G. Aresti J. M. Arrieta	{ <i>Asterix legionarioa**</i> (Donostia)
1976	Gosciny/G. Aresti J. M. Arrieta	{ <i>Asteris eta normandoak**</i> (Donostia)
1976	A. Irala	<i>Bat bitan banatzen daII</i> (Donostia)
1976	Askoren artean	<i>Bidaia eta esploraketak**</i> (Donostia)
1976	A. Zubikarai	<i>Boga ta Zixe/Rema y Cia***</i>
1976	M. Sota/P. Lafitte L. Akesolo	{ <i>Ondarrutarkeriak/Temas de Ondárroa</i> (Bilbao)
1976	Díaz Plaja, Rius X. Mendiguren	{ <i>Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca I***</i>
1976	X. Mendiguren	{ <i>Eguzki ibiltaria**</i> (Barcelona-Bilbao)
1976	Askoren artean	<i>Etxabizitza eta ohiturak**</i> (Donostia)
1976	K. Kerexeta	<i>Euskal Biblia**</i> (Bilbao)
1976	Orixe/I. Goikoetxea	<i>Euskaldunak/Los vascos***</i>
1976	X. Gereño	<i>Euskera ikasteko metodoa/Método de Euskera***</i> (Bilbao)
1976	P. Axular/Villasante	<i>Gero***/*</i> (Arantzazu)
1976	Schiller/J. F. Setién	<i>Gilen Tell**</i> (Bilbao)

1976	Abbé Arotcarena	<i>Grammaire</i> (Dialectes Navarro-Labourdins)* (Baiona)
1976	J. Zabala Arana	<i>Gramática Vasca*</i> (Tolosa)
1976	A. Urrestarazu (Umandi)	{ <i>Gramática 1*</i> (Tolosa)
1976	A. Urrestarazu (Umandi)	{ <i>Gramática 2</i> (Tolosa)
1976	V. M. Pedrosa/ A. Munarriz	{ <i>Haurrak aitortza eta jaunartze bidean**</i> (Laz- kao)
1976	J. M. Rementeria/ Euskara batua/ S. Garmendia	{ <i>Izar-arteko hegazketak**</i> (Donostia)
1976	Askoren artean	<i>Jesus askatasuna bidean**</i> (Bilbao)
1976	Thivollier/IKER	{ <i>Jesús, handiekin batera zuregana goaz**</i> (Ma- drid)
1976	I. Arana/V. Pedrosa A. Zugasti/Euskara batuz: S. Garmendia	{ <i>Kardala/Rompiente**</i>
1976	A. Zubikarai	{ <i>Ondarroako gauzak/Cosas de Ondárroa</i> (Bil- bao)
1976	M. Zerbantes/ P. Berrondo	{ <i>Kijote Mantxa'ko I**</i> (Zarautz)
1976	Askoren artean	<i>Komunikabideak**</i> (Donostia)
1976	A. Rdez. Castelao K. Izagirre	{ <i>Kristalezko begia**</i> (Donostia)
1976	Secr. Nac. de Catequesis	{ <i>Kristau Ikasbidea III**</i> (Madrid)
1976	Chumillas/A. Zugasti	<i>Kristau Ikasbidea 4 maila**</i>
1976	Askoren artean	<i>Lana eta arategintza***</i> (Donostia)
1976	J. Verne/I. Azkune	<i>Lurraren bihotzeraino**</i> (Bilbao)
1976	GI Eren ardurapean	<i>Matematika-1</i> (Fitxak)**
1976	E. Salgari/ X. Mendiguren	{ <i>Morgan I**</i> (Bilbao)
1976	E. Salgari/ X. Mendiguren	{ <i>Morgan II**</i> (Bilbao)
1976	A. M. Labayen	{ <i>Muñagorri, Exkribaua, pakegille eta fueroza- le***</i> (Donostia)
1976	A. Peiró Hurtado	<i>Natur Zientziak 6</i> (Bilbao)
1976	A. Peiró Hurtado	<i>Natur Zientziak 7</i> (Bilbao)
1976	G. Aresti	<i>Obra guztiak. Poemak I***</i> (Donostia)
1976	G. Aresti	<i>Obra guztiak. Poemak II***</i> (Donostia)
1976	Irakaskuntza eta aurrerapen aldeko alkartea	{ <i>Ostolazaren Testamentua**</i> (Deba)
1976	IKER	<i>Saioka III*</i> (Projektuak eta gaiak) (Bilbao)
1976	IKER	<i>Saioka III**</i> (Projektuak eta ariketak) (Bilbao)
1976	IKER	<i>Saioka III*</i> (Osagarriak eta ariketak) (Bilbao)
1976	IKER	<i>Saioka III**</i> (Osagarriak eta ariketak)
1976	IKER	<i>Saioka IV Sozial arloa</i> (Bilbao)
1976	IKER	<i>Saioka IV Natur arloa</i> (Bilbao)

1976	IKER	<i>Saioka IV. Osagarriak eta ariketak</i> (Bilbao)
1976	E. Salgari/IKER	<i>Sandokan**</i> (Bilbao)
1976	J. Casenave/Eusk. Bat.: J. A. Aduriz/Frants.: O. Idiart	{ <i>Santa Grazi</i> (Pastorala)***
1976	— —	<i>Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca- Euskaltzaindia*</i> (Madrid-Bilbao)
1976	— —	<i>Tekniko-Industrial hiztegia***</i> (Elgoibar)
1976	— —	<i>Txano Gorritxo**</i> (Bilbao)
1976	B. Larrakoetxea	<i>W. Shakespeare-6 Odol-antzerkiak-B**</i> (To- losa)
1977	Berrondo	<i>Don Kijote Mantxa'ko</i>
1977	X. X.	<i>Biblia denontzat</i>
1977	D. Arrinda	<i>Jeovatarrak</i>
1977	K. Otegi	<i>Pertsonaia euskal nobelagintzan</i>
1977	Elkar lanean	<i>Euskal Hiztegi modernoa. Diccionario moderno</i>
1977	B. de Juan	<i>Nire lehen hitzak euskaraz</i>
1977	L. M. Mugica	<i>Diccionario general y técnico</i>
1977	Jakin-3	<i>Autonomi Estatutua</i>
1978	X. Gereño	<i>Diccionario escolar Castellano-Euskara</i>
1978	L. M. Mugica	<i>Hiztegi orokor-teknikoa, 2</i>
1978	Trifol T.	<i>Guía de conversación (Español-Francés-Eus- kara)</i>
1978	X. X.	<i>Euzkadí'ko Agintaritzaren egunerokoa</i> <i>Diario Oficial del País Vasco 3 ale</i>
1978	A. Schommer/ M. Ugalde	{ <i>Herri baten deihadarra. El grito de un pueblo</i>
1978	B. Dechepare	<i>Olerkiak</i> (bilingüe)
1978	L. Villasante	<i>Estudios de Sintaxis Vasca</i>
1978	X. X.	<i>Diccionario Castellano-euskera, euskera-caste- llano</i>
1978	Olariaga	<i>Itun berria</i>
1979	Alvarez Emparanza	<i>La pintura vasca contemporánea/Gaur eguneko euskal pintura</i>
1979	Elkar lanean	<i>Euskaldunak</i> (La etnia vasca)
1979	Elkar lanean	<i>Itxaskaria</i>
1979	X. X.	<i>Hizkuntz borroka Euskal Herrian</i>
1979	P. Altuna	<i>Etxepareren hiztegia</i>
1979	A. Sartre	<i>Gilen Tell-ek begiak triste</i>

Euskal itzulpenari buruzko zenbait gogoeta

Larriki euskal itzulpenen zerrenda honi begirada bat ematen badiogu, gure literatur sorkuntza osoaren barruan suposatzen duen ekarriaren kopuruak harritzen gaitu; eta bestetik, itzulpen askoren gaia erlijiozkoa dela ikusteak. Lehen lau mendeetan zehar, zenbait gramatika eta hiztegi baztertuz gero, (15en bat guztira), banaka batzu baizik ez dira erlijioaz kanpoko gaiak darabiltzaten itzulpenak: *Liburu hau da ixa-*

soco nabigacionecoa, Birginia, La Fontaineren zenbait alegia, Fableac edo aleguiac, Atheke Gaitzeko Oihartzunak, Ipui Onac, Euskal-Nafarren joaera edo emigrazioa, Zalameako Alkatia (ezosoa). Erlijio gaiezkoek, berriz, laroeitiko gora dira denbora epe berean.

Gure mende honi bagagozkio, berriz, gauzak aldatuz joan direla esan beharrean gaude, gerra ondoan batez ere eta azken bi hamarkadetan bereziki: hizkuntzari buruzkoak (euskaraz soilik burutuak landa) ia berrogei ta hamar inguru direlarik, erlijiozkoak 135 inguru dira, eta gainerako gaiez osotuak bostehunen bat titulu, gutxi gora behera. Beraz, nabaria da gaiari dagokionez, azken urteotan gertatu den aldakuntza.

Itzulpenaren nolakotasunari dagokionean, denetarik aurki daiteke zerrenda honetako tituluaren artean.

Leizarragaren itzulpen ia hitzez-hitzezkoa bezalako zenbait kasu salbu, lehen mendeetan egokipen edo moldapen gisakoak gailentzen direla esan dezakegu, eta sintaxia eta hiztegiari dagokionean jatorrizko hizkuntzaren eragina aski nabarmena dela itzulpen gehienetan. Itzulpen hauek burutzerakoan, aski nabarmena da hizkuntzarekiko kezka baino irakurleari eduki erlijiosoak modu ulergarri eta erraz batez eskaintzearen ardura askozaz biziagoa izan dela.

XX mendearen haseran, berriz, purismoaren eraginez burututako itzulpenek eten nabaria suposatzen dute, oro har, aurreko usadioarekiko. Halere, Zabala-Arana, Eleizalde, Jauregiren eta Orixeren joeraren artean desberdintasun handia agiri da batez ere hiztegiaridagokionean. Azken urteotako itzulpen joeraren berezitasunak erabat laburtzea erraza ez bada ere, zera esan daiteke: alde batetik euskalkizko itzulpenak urrituz joan direla, eta gehienbat erlijiozko textuen inguruan ardaztu dela itzulpen moeta hau. Halere, ohargarriak dira zenbait liturgi textuen euskara batuaz hurbiltzeko egin den ahalegina eta itzulpenaren kalitate nabarmena. Gainera, zantzu adierazgarria da katolikoen eta ebanjelikoen artean burutzen ari diren *Elizen arteko Biblia* euskara batuzkoa izatea. Testamentu Berria laster argitaratzekoa da eta kalitate handikotzat jo daiteke beraren itzulpena.

Bestalde ez-erlijiozko gaiak darabiltzaten itzulpenak euskara batuaz burutzeko joera nabarmenki indartu dela, irakaskuntz premien eraginez, eta itzulpen joera erredukzionista eta puristak alde batetara utzirik, gero eta itzulpen integratzaileagoa eta zehatzagoa egitearen joera nagusitzen ari dela: ikastoletako textugintza, UZEIren lanak eta zenbait argitaletzek eskainitako enziklopedia gisako lanak dira lekuko.

Halere, dinamismo handiegirik ez badu ere, bada batez ere Bizkaian, gerraurre eta gerraondo hurbileko erizpide purista eta aski subjektiboen bidetik, euskalkizko textugintza bat bultzatu nahi lukeen sektore bat. (Ikus Anaya eta S.M. editorialen zenbait itzulpen).

Gaurreguneko eta etorkizun hurbileko itzulpen positiboki baldintzatuko duten fenomeno nagusiei bagagozkie, alde batetik irakaskuntza formalaren barnean eta inguruan burutzen ari den ekintza aipatu behar da: UZEIren hiztegi-gintza (neurri zabal batetan itzulpen lan bezala hartu behar dena) aski erabakitzailea dateke terminologia zientifikoa finkatzerakoan ezezik, oinarrizko euskararenean ere, eta itzultze joera jakin baten baldintzak ezartzean. Bestalde, EKN-ko Batzorde Mistoak irakas textuen berrikusketa eta orrazketa erakunde beronen eskutan jarri duelarik, hiztegi-gintzan erabili dituen erizpideak etorkizunean berrindartu behar den textugintzara ere hedatuko direla uste izan behar da.

Bestalde, EKNaren eskupean dauden hiru probintzietan eta Nafarroan, udal askotan itzultzaileak izendatzeari ekin zaio azken aldi honetan. Administrazio Lokaleko Kontseilaritzak dekretu bidez, itzultzaile hauen statusa arautu eta kolegio bat eratu nahi duelarik, badirudi iraunkortasun bat eskuratu nahi diela lanbide honetan ihardungo dutenei. Duela bizpahiru hilabete batzorde bat eratu zen udaletako itzultzaileen ordezkari, Diputazio, EKN eta Euskaltzaindiaren partaidegoz, eta lehen aipaturiko UZEI erakunde berari eskatu zitzaion, behin-behinekoz bederen, udal etxeetako itzultzaileen hizkuntz koordinazio eta asesoratze lana bere eskutan har zezala, jadanik kooperatiba alorrean burutzen ari zen lanaren bidetik. Batzordekideen eskabidez, Euskaltzaindiak, bi gutun igorri zituen, bata EKNko Lehendakariari eta Nafarroako Diputazio Foralaren Lehendakariari bestea, aipaturiko nahia azalduz eta UZEIk egindako *Euskara Administrazio Publikoan* (Projektua eta Aurrekontua) ere eskainiz.

Dirudienez eskabide hau begi onez ikusia da eta onarpen ofiziala eta finantzia-pena eskuratu baino lehen, UZEI bere lanari lotu zaio, itzultzaileen eta euskararen mesedetan. Pauso honek oso eragin positiboa izango duelakoan gaude administralgo-ko euskararen eta itzulpen kalitatearen baitan.

Azkenik, komunikabideetan, egunkarietan eta aldizkarietan bereziki, itzulpenak sarrera handia duela aitortu behar da, mundu zabaleko berriak euskaratzeaz denaz bezanbatean. Kazetaritzako euskararen aberaste honek biziki eragiten dio gure hizkuntzaren eguneratzeari. Baina maila honetan joera desberdinak nabari direlarik, erizpideak bateratze baten premia somatzen da, aberaste hau modu anarkikoz gerta ez dadin, are gehiago, etorkizun hurbilean euskarazko telebistaren bitartez, komunikabideetako testu itzuliek hedadura handia hartuko duten eguna ia gainean dugu-nean.

Honek guzti honek zera pentsaraztera garamatza, alegia, une honetan inoiz baino beharrezkoagoa zaigula, euskararen finkapen eta garatzean hainbesteko eragina duten ekintza eta erakunde desberdin hauen artean (UZEI, administrazio mailako itzultzaileak, kazetaritza, textugileak eta editorialak...) erizpide bateratuak eta hizkuntz koordinazio eginkor bat lortzea itzulpenari hain loturik dagoen euskaragintza barreira eta zatika ez dadin.

Gure itzulpenaz ari garelarik, ez dut uste lekuz kanpoko gerta litekeenik hemen K. Mitxelenak duela hogeit urte (Asaba zaharren baratza, EGAN, 1960 (3-6), 121-134.or.) egin zizkigun zenbait ohar gogoraztea: "Itzulpen ugari izan dugu gure artean euskal literatura hasi zenez geroztik. Itzulpen horiek, ordea, biziro zabaldu eta ugari-tu dira azken urteotan. Zorretan gaude lan horretan aritu eta ari direnekin, premiaz-koak bait ziren itzulpenok eta hizkuntza lantzeko bide egokia.

Ez dakit ordea horien balioa goregi jaso ez ote daukagun. Erruz agertzen dira itzulpenak hizkuntza landuetan, baina ez diote itzulpenek ematen literatura bati bere maila, berezko obrek baizik. Literatura baten loraldietan itzulpenak berez datoz, gorputzaren ondoren isatsa datorren bezala. Isatsa horratik ez da gorputza; ez da gorputzarentzat kalte gehiegirik gabe motz daitekeen eraskin luzea edo laburra besterik. Gehiago txundituko ditugu arrotzak gure obra bat haien erdarara itzuleraziaz haien erdaratik hamar gureganatuz baino.

Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gaine-ra. Ez da hizkuntza bere buruaren jabe, besteren mirabe baizik: besteren hitzak, esae-rak eta legeak dauzka beti gogoan haiei nola egokituko zaien asma beharrez."

Mitxelena jaunaren lerro hauek argiro erakusten dute, Andimak esango zukeenez, “erderarekiko ioputasunaren” arriskua eta ondorioz, gertatzen den hizkuntz eta literatur kolonialismoa. Baina honetan ere, beste gauza askotan bezala, gauzak ez dira beharko lukeenaren errepidetik ibiltzen, eta gauden-gaudenean erabat inizatiba pribatu, inolako plangintzarik (eta diru laguntza orekatzailerik) gabe itzulpenak bere bideak urratzen dituelarik, nekez pentsa genezake euskaratik erderara asko itzultzean, ez baitago aukera handiegirik alde batetik, eta dagoen apurra nolabaiteko itzulpen politika baten arabera argitaratzen baita. Ez dugu hemen aipatuko Arestiren obraren itzulpena, arestian Mitxelena, Sarasola, Knörr eta abarren arrazoizko suminak asaldarazi dituen, hurbilegi baitago eta guztion gogoetan.

Baina bestalde esan dezagun hizkuntz finkatze askoren haseran —txekera, hebraiera modernoaren eta abarren kasuak baizik ez aipatzeko— itzulpenak zerikusi garrantzitsu bat izan duela. Eta Cesare Pavese, itzultzaile eta literaturgile ofizioa ongi zekienaren hitzak, aipagarriak dira zentzu honetan: “(Literaturazko) loraldi handien aurretik itzultzaile emankorrezko belaunaldi bat izan ohi da (neoterioi, stilnovistak, isabelinoak, saminaren hirukotea, errusiar nobelagintza, neorealismo amerikarra)”. (*Il mestiere di vivere. Il mestiere di poeta*, 11-I-1940).

Mitxelenak eta Pavese diotenaren artean ez dago inolako antinomia edo kontraesanik. Mitxelenak hizkuntzarekiko kezka bat adierazten du, egiazko arriskua dena eta Pavese literaturgintza orok beharrezkoa duen kanpotiko ernalketa, “ghetto” giroan nekez eman baitaiteke benetako sorkuntzarik. “Zenbat eta historia gure garaietara hurbiltzenago den, hainbat eta gehiago gertatzen da bi zibilizazioen artean haragi bidezko urtzearen ordez paper bidezkoa. Inbasioei itzulpenak darraizkiet. (Ibidem)”.

Kakoa honetan datza: ofizioko itzulpenak egitean, une horretan hizkuntzak dituen ahalbide guztiak baliarazten jakitean, eta literatur textuei dagokienean, bir-kreazio lana burutzean, sentiberatasun estilistiko finenaz.

Gure artean, agian, gutxiegi ikusten ditugu sortzaile-itzultzaileak Orixe, Mirande eta Arestiren kasuak salbu, badirudi itzultzailearen egitekoa bigarren mailakotzat daukagula edo. Bestetara gertatzen zen XIX.mendearen bukaerako errusiar literaturan eta fruitu umorik ikusi ahal izan zuten. Ezaguna da bestalde, Majakovskij-ren harako hura: “Zure poesia itzul daitekeela uste al duzu? - Bai —erantzun zuen hark— baina itzultzailea ni bezain poeta ona baldin bada”. Argi dago nola ulertzen zuen literatur itzultzaile ofizioa. Labur esateko, textu faktual edo denotatiboen itzultze lanean erabat murgildurik eta buru-belarri gabiltzan honetan (sintomatikoa da Gandiagaren azken aldiko irakurgaiak Natur Zientziak eta antzekoak izatea), hizkuntzaren orekak literaturgileak kreazio-lanak itzultzen hastea edota estilistikaz ongi hornituriko itzultzaileak mundu literaturako obra nagusienak itzultzeari ekitea. Hutsune hau nabariegia da gure artean, eta erabakitzailea izan daiteke kutsu artifiziala nabari zaion Euskara Batua hezur eta haragizko bihur dadin eta euskalki eta subeuskalkietatik bizi-irainaz jabe dadin. Honetan ere bada zer ikasirik Pavese italiarraren obran.

EUSKAL ITZULTZAILEEN PRESTAKUNTZARAKO IKASTALDIAK

Guk dakigularik azken bost urteotan lau ikastaldi antolatu dira Euskal Herrian Euskal Itzultzaileak prestatzeko:

- Arrasaten (1976)
- Ustaritzeko UEU-n (1976)
- Arantzazun (1977)
- Santutxun (1978-79)

Arrasate eta Ustaritzeko Ikastaldiak

Bi ikastaldi hauek, programaz eta irakaslegoz, berdintsuak izan zirenez gero, batera aipatuko ditugu.

Lehena 1976.eko uztaillean, Arrasateko Eskola Profesionalean ospatu zen, bertako CIM-AHIZKE-ren babespean. Hamar egunetako iraupena izan zuen eta 30eko ikasle kopurua bildu zen.

Irakasleak hiru izan ziren: J. R. Etxebarria, Xabier Kintana eta Xabier Mendi-guren. Ikastaldi teoriko-praktikoa izan zen honako programaren arabera banatu zelarik:

1. Sarrera eta ikuspegi orokorra
Literatur textuen itzulpena
Kazetaritzako textuen itzulpena
Orixeren itzultze modua (X. Mendiguren)
2. Textu didaktikoen itzulpena
“Bilboko Eskola” eta hizkuntzaren finkapena
Morfologia: aurrizkiak eta atzizkiak (X. Kintana)
Lexikologia
3. Textu teknikoen itzulpena
Sintaxia eta analisi sintaktikoa (J. R. Etxebarria)

Santutxuko Ikastaldia (1978-79)

Ikastaldi hau 1978.eko azaroaren 2an hasi eta 1979.eko maiatzaren 10ean bukatu zen, eta berrogei bat ordutako iraupena izan zuen. Jose Ramon Etxebarria izan zen irakasle, eta neurri handi batetan Arrasaten eta Ustaritzen emandako ikas-taldiaz baliatu zen beste hau antolatzean.

Hona hemen ikastaldian zehar azaldutako gaien zerrenda:

- Sarrera eta Helburuak
- Itzulpenak zer diren
- Textu idatzien itzulpena
- Itzulpenen arazo teknikoak
- Zenbait itzultze moduren kritika (Orixe, Kerexeta, etab.)
- Itzulpen pedagogikoak zer diren
- Euskal Hiztegia (hitz mailebatuak, elkartuak, eratorriak)
- Textu teknikoen itzulpena
- Orixeren itzultze modua
- Euskal sintaxia eta beronen analisia
- Kazetaritzako testuak
- Kerexetaren itzultze modua (Euskal Biblia)
- Literatur textuen itzulpena

Ikastaldiaren alderdi praktikoari dagokionez, hiruna pertsonatako taldetan egiten zen lan. Esaldiz esaldi, hiruren artean testu bakarra aukeratu behar izaten zuten, ondoren zuzenketa eta kritika elkarren artean eginez. Ondoren guztien kritika egiten zen eta aurkitutako zailtasunen berri ematen. Klase bakoitzaren ondoren etxerako lan jakina ematen zen.

Elizarteko Bibliaren Itzultzaileentzako Ikastaldia

Eliza Ebanjelikoak Euskara Batura Biblia osoa itzultzeko asmoa adierazi zuelarrik, katoliko eta ebanjelikoz osoturiko itzultzaile taldea eratu bezain laster, 1977.eko irailaren 12tik 17rako astea Itzulpen Teoriari buruzko ikastaldia antolatu zuen Arantzazun.

Ikastaldia hau teoriko-praktikoa izan zen: alde batetik *Itzulpenaren Teoria* modu sistematiko batez eman zen, bereziki Bibliaren itzulpenean aurkitzen diren berezitasun eta zailtasunak kontutan harturik, Tubingako Unibertsitateko Prof. Doktor H. P. Rüger, irakasle zelarrik, eta bestetik Mendoza jauna, Bibliaren espainolezko itzulpenen arduradun denak *Bibliaren Itzulpen herritarrak* gaia azaldu zuen.

Alderdi praktikoari dagokionez, taldean itzulpen ariketak egiten ziren, eta Euskara Batua eta itzulpenaren arazoak eztabaidatzen ziren. Hona hemen H. P. Rüger jaunak azaldutako gaiaren eduki orokorrak.

Bibli Itzulpenaren Zientzia eta Teknika

- Itzulpenaren Funtsa
- Testuinguruaren konkordantzia konkordantzia literala baino garrantzitasago
- Baliokidetzatza dinamikoa formalatza baino garrantzitsuago
- Hizkuntza mintzatua idatziaren gainetik
- Mezu hartzailearen garrantzia
- Analisia gramatikala
- Hitzen adiera: determinazio sintaktikoak eta semiotatikoak
- Itzulpena:
 - Espazio, denbora eta logikazko harremanak
 - Idiotismoak
 - Adiera figuratuak
 - Pleonasmak
 - Formulismoak
 - Adieraren osagai banaketa
 - Testuingurua azaldu eta osotu beharra
- Alderdi gramatikalak: sintaxia, ukapen bikoitza, numeroa, aditz boza, parataxia, hipotaxia, aposizioa, elipsia, kategoria gramatikalak
- Textuaren berregituratzea.

EUSKAL ITZULTZAILEEN ERITZIAK

Sarrerari jadanik aipatu denez, azken urteotan itzulpen arloan gehienbat nabarmendu eta gaurregun ere lanbide honetan ari diren pertsonen eritziak garrantzi handi-

kotzat jotzen ditugu Eskolaren sorreran ezezik geroko ibilpidean ere, berauek osotuko baitute nolabait ere beharrezkoa duen ingurune naturala.

Itzultzaileen artean zabaldu den inkestak ez du izan inolako asmo agortzailerik, eta datu eta eritziak sistematikoki biltzeari baino jaramon handiagoa egin diogu joera nagusiak detektatzeari.

Ikestak banatzerakoan bi erizpide konbinatu ditugu: azken hamarkadetan obra itzuliren bat argiraturikoa izatea edota iragan hurbilagoan eta bereziki gaurregun udaletan nahiz kultur erakunde edo zerbitzuren batetan itzulpen lanetan ari izatea.

Honela bada, ehunen bat itzultzaileri bidali zaizkie inkestak, nahiz eta sarritan aurretiaz jakin erantzunak jasotzea ez zela erraza izango inkestatuaren adinarengatik edota zenbaiten itzulpen ekintza oso mugatua, behin-behinekoa eta denboran zehar urrundua delako.

Bestalde, txosten honetan joera nagusi batzu erakustea delarik helburu eta denbora mugatasunengatik, lehen epe labur batetan bildu ditugun 30 erantzunen gainean moldatu dugu ondoren eskainiko dugun eritzi bilduma hau.

1. Itzultzaileen adina eta jatorria

— Adinari dagokionean itzultzaileen gehiengoa (75 %) 26-45 urte bitartean kokatzen da, banaketa aski berdin baten arabera, Beste multzo adierazgarri bat 56-70 urte bitartekoek osatzen dute, ia ehuneko hogeitaz bost direlarik.

— Jatorriari dagokionean, hirutatik bi gipuzkoarrak dira eta gainerakoak bizkaitarrak, arabar bat izan ezin. Nafarrik eta Iparraldekorik ez da agertzen erantzuleen artean.

2. Itzultzaileen ikasketa maila

Ikasketa mailari dagokionean, 70 % da prestakuntza unibertsitarioa dutenen kopurua, eta ia gehienek letra mailako ikasketak burutu dituzte.

Gainerakoek (30 %) goi batxilerra edo apaiz ikasketak dituzte, nahiz eta beti bukatzera iritsi ez diren. Ikus daitekeenez, erantzuleen kultur prestakuntza aski garrantzitsua dela aitortu daiteke.

3. Itzultzaileen gaurko lanbidea

Erantzuleen ia erdiak (46,6 %) itzultzaile bezala egiten du lan eta gainerakoek portzentaia antzekotsutan irakasle, bulegolari eta idazle bezala lan egiten dutela adierazi dute.

30-en artean bi dira apaiz lanbidean ari direnak. Itzultzaileetarik (30 %) dira udaletxeetan ari direnak eta 26,6 % UZEI-n lan egiten dutenak. Gainerakoak editorial eta kultur erakundeetan sakabanaturik aritzen dira.

4. Itzulpenetan erabiltako euskara

Euskara Batua soilik erabiltzen dutela erantzun dutenak (80 %) dira. Euskalkia soilik erabiltzen dutenak (13,3 %) eta biak erabiltzen dituztenak (6,6 %).

5. Itzultzailearen kontzientzia profesionala

Hiru erantzun prosibleren artean, itzultzaileek honela banatu dituzte bere erri-ziak: beren burua profesional bezala ikusten ditunak 26,6 % dira; erdi-profesional bezala ikusten dutenak ere beste horrenbeste dira (26,6 %) eta 36,6 % behin-behineko itzultzaile direla diotenak. Gainerakoek ez dute erantzun. Beraz erdiak baino gehiagok (53,2 %) du nolabaiteko kontzientzia profesionala bere itzultzaile eginbideari buruz.

6. Itzulpenak zein hizkuntzatatik

Erantzuleen erdiak (50 %) gaztelaniatik soilik egin ditu itzulpenak; bederatzik (30 %) gaztelania eta frantsesetik. Hiru dira ingelesetik eta bi alemanetik ere egin dituztenak.

Beste hizkuntza batzutatik, batez ere klasikoetatik, itzulpenak egin dituztenak bost dira (16,6 %).

7. Itzultzailearen prestakuntza prozesua

Hogei ta seik (86,6 %) erabat prestakuntza pertsonal edo autodidakta bati jarraiki zaizkiola erantzuten dute. Lau (13,3 %) dira ikastaldiez ere baliatu direla diotenak. (Gogoan har bedi duela lau urte Arrasaten eta Ustaritzen ospatu zen U.E.U.-n Itzultzaileentzako bi ikastaldi eratu zirela). Norbaiten laguntzaz ere baliatu direnak hiru dira.

8. Itzultzean aurkitutako zailtasunen mailakatzeara

Zortzi zailtasun moeta edo puntu eskaintzen zitzaizkien inkestatuei, nork bere esperientziaren arabera ordena zitzan.

Gehienbat nabarmendu dituzten zailtasunak bi izan dira: lehendabizi *euskal lexikoaren egoeratik* sortzen direnak eta *sintaxiarenetik* sortutakoak hurrena.

Hizkuntza orokorki finkatu gabe egoteak sortzen dituen zailtasunak aipatu dituzte hirugarren postuan.

Irakurlearen euskara mugatuak sortzen dituenak laugarrenean.

Gainerako zailtasun posibleak: euskal morfologiaren aldetikoak, itzulgaiaren ezagupenaren aldetikoak, erdararen ezagupenaren aldetikoak eta azkenik, purismoak sortzen duen eraginaren aldetikoak bigarren mailakotzat jo daitezke erantzunen arabera.

9. Euskal itzultzailerik hoberena

Galdeta hau oso korapilotsua bada ere dagoen-dagoenean, beste inolako zehaztapenik gabe, nolabait itzultzaileek duten joera eta ideala nolabait mugatzeko asmoz egin zen, bai eta zenbait itzultzailek bestengan izan lezake eragina nolabait ikusteko.

Erdiak ozta-ozta erantzun duelarik ere hona hemen aipatu dituzten izenak: X. Garmendia (4), D. Amundarain (3), Orixe (2), Txillardegi (2), X. Mendiguren (2), G. Aresti (1), Berriatua (1), X. Kintana (1), J. L. Merino (1).

10. Itzultzaile Eskolaren balioa

Ia ehunetik ehunek baietz erantzun du, Itzultzaile Eskola batek itzultzaile-lana burutzeko prestakuntza baliozkorik eskain ote lezakeen galdetu denean.

Horretarako ikus litzaketen arrazoiak aipatzeko eskatzean, gehienbat azpimarkatu dutena erizpideak edo *kriterioak bateratzearen* premia adierazi dute erantzunetan eta *hizkuntza finkatzeko* bitarteko egokia izan litekeelako bigarren mailan. Eta azkenik, aldeztu edo moldez, itzultzailearen eginbidea *profesionalizatzea* eta *oreka teoriko-praktiko* batetan sendotzea derriorezkoa iruditzen zaielako.

11. Itzulpen teoriari buruzko ezagupena

Itzulpenari buruzko ezagupen teoriko gutxi dutela aitortu dutenak 17 izan dira (56,6 %) eta deus ez dutenak bederatzik (30 %). Batek bakarrik erantzun du asko, eta Bibliari itzulpenari buruzkoa dela ezagupen hori zehaztu du.

Gai honetaz ezagutzen duten bibliografia eskatzean honako autoreak agertu dira: *G. Mounin* (3 aldiz), *Nida-Taber* (1), *Alonso-Zorro* (1), *Octavio Paz* (1), *Carlo Buzzetti* (1).

12. Itzultzaile Eskolako asignatura posibleak

Oinarritzko prestakuntzarako Euskal Itzultzaile Eskolan ikasteko 10 asignatura posibleak izan litezkeenok ordenatzeko eskatzean, honela erakutsi dituzte preferentziak:

1. Euskal morfosintaxia
2. Euskal Lexikologia
3. Itzulpenaren historia eta teoria
4. Teoria linguistiko orokorra
5. Euskal Itzulpenaren historia kritikoa
6. Textu mailakatuen itzulpen gidatua
7. Estilistika
8. Euskal Literatura: historia eta autoreen ezagupena
9. Gaztelaniazko morfosintaxia eta lexikologia
10. Gaztelaniazko literatura

Hautaketa honen interpretazio behin-behineko bat aurreratuz, zera esan daiteke: gaurko euskal itzultzailea gehienbat kezkatzen duena euskara hizkuntza bezala ezagutzea eta sakontzea dela, agian maila horretan defizit nabaria somatzen baitu.

Bigarren maila batetan nahi duela itzulpen teoria eta teknika eta azken maila batetan, nahiz eta garrantzirik ez diola ematen pentsatu beharrik ez dagoen, Literatura eta Gaztelaniaren ezagupena.

Bistan dago oraindik aro "linguistizista" batetan aurkitzen garela eta hizkuntza-ren normalizazio eta finkapen ezak biziki baldintzatzen duela itzultzailearen lana, eta gure demandaren baitan itzulpen literarioak, *sensu stricto* oso sarrera mugatua duela.

13. Interpretariak prestatzearen garrantzia

Itzultzaileen prestakuntza arautu bat oraindik ez dugun honetan, interpretarien beharraz galdetzean, bazirudien oso bigarren mailakotzat joko zela arazo hau dituen

berezitasunengatik eta oraindik oso eskabide urria dagoelako, baina aski datu adierazgarriak agertu dira.

Erantzun dutenak 24 direlarik, (87,5 %) interpretariak prestatzea ere beharrezko dela aitortu dute. Batek bakarrik erantzun du ezetz eta beste batek ez du eritzirik.

Baiezkoaren arrazoia erantzuleen erdiak eman du eta kontzientzia sozio-politiko nabarmena agertu dute euskararen normalizazioarekiko. Interpretariak beharrezko ikusten dituzte geroari begira politika eta administrazioaren mundua benetako elebitasun batetara iristeko eta hizkuntz normalizaziora.

Badirudi, itzulpen idatziek zenbaitentzat sinbolismo maila ozta gaintitzen dutela eta aurrean bezala areago direla eta hizkuntza mintzatura pasatzea hil-edo-bizikoa dela.

14. Itzultzaile prestakuntzaren formaltasuna

Erantzuna eman duten 24etarik 15 unibertsitate mailako prestakuntza baten aldeko agertu dira (62,5 %), gainerakoak ikastaldi (kurtsilo) erako prestakuntzaren aldekoak.

Kontutan har bedi, erantzuleen artean asko dela beren eguneroko lana eta unibertsitate erako ikasketak egitea posible ikusten ez duena, eta ikasle posible asko ere egoera horretan daudenak izanik, arrazoi horregatik agertu direla uste dugu hainbeste erantzun ikastaldien alde. Baina ez dugu uste bi erantzun hauek elkar ukatzaileak direnik, zeren eta inork ez baitu hautatu hirugarren aukera, hots, *prestakuntza informal eta laburrarena*.

Beraz, ondorio gisa, itzultzaileak nahiko baloratzen duela bere lana eta bertan aurkitzen duen zailtasuna eta era berean, prestakuntza sistematiko eta sakon baten premiaz jabeturik dagoela aitortu genezake. Hauxe da erantzunaren arrazoiak galdetxean erantzun dutena: kultur maila handia, sistematikotasuna, profesionaltasuna, seriotasuna etab. bezalako kontzeptuak erabiltzean.

15. Itzultzaile prestakuntzaren iraupena

Galdera nolabait mugatzeko egunero lau ordutako iharduna oinarritzat harturik, aukera batzu eskaintzen ziren prestakuntzaren iraupenaz. Argi dago erantzun erabat indikatiboa nahi zela, eta aurreko galderak bezala, prestakuntzaren garrantzia dagoen kontzientzia neurtze ahalegin bat baizik ez dela.

Hogei ta hamarretik 23-k erantzun dute:

Sei hilabete (3)
Urte bete (8)
Bi urte (6)
Hiru urte (5)
Gehiago (0)

Erantzunek beren laburrean adierazten dutenez, “erdi-karrera” baten statusa izan beharko luke prestakuntza horrek gure itzultzaile multzo dinamikoenaren esperientziaz eta eritiziz.

16. **Ikaslearen sarrerako prestakuntza maila**

Bi parametro ezartzen ziren neurketarako: kultura eta euskara.

Kulturaren sailean hiru aukera zeuden eta erantzunak honela banatu dira:

Unibertsitate ikasketak (4)

COU - BUP ikasketak (6)

Kultura orokor ona (azterketa baten arabera) (16)

Batek hiru aukera proposatzen ditu.

Euskararen sailean bi aukera zeuden:

Euskaltzaindiko "B" titulua (9)

Euskaltzaindiko "D" titulua (15)

Ikus daitekeenez, erantzunak agian ez dira oso adierazgarriak, baina beti ere *Kultura orokor on bat* eta euskarazko *"D" titulua* joera nagusia markatzen dutenak direlarik, orientagarri gerta daitezke.

17. **Itzultzaile profesioaren statusa**

Galdera honi 20-k erantzun diote eta bi aukera zeuden, eta honela formulaturik zegoen: itzultzaile profesioa nola nahiko zenuke:

— erabat arauturik (karneta, tarifak...) (17)

— orain arte bezala arautu gabe (3)

Ondorio gisa, itzultzailea ez dagoela ados espontaneismo edo anarkiarekin esan liteke, eta beste profesio batzuren pareko edo antzeko status baten bila joatea begi onez ikusten du.

Hau guztiau estuki loturik dago lehengo zenbait erantzunekin eta prestakuntzaz eta bere egitekoak duen aritziarekin.

18. **Euskal Itzultzaileen Lan Ihardunaldi baten premia**

— Bost aukera posible zituen galderak eta gutxira 29 erantzun dute.

Beharrezkoa dela 15 erantzun dute.

Komenigarri dela 10 erantzun dute.

Inork ez du erantzun *beharrezkoa ez denik* edo kaltegarria denik eta eritzirik gabe-koak 4 izan dira.

Positiboki erantzun dutenen eritziak 83 % inguru suposatzen du.

— Honelako Ihardunaldi batetan zer mailatako parte hartzea izango luketen galdetzean, 4-k antolatzaile gisa, 5-ek ponente bezala eta 14-k entzule erara erantzun dute. Zenbaitek maila bakarrean baino gehiagotan esku hartzeko gertutasuna adierazi du.

19. **Itzultzaileen arteko aldizkaria**

Euskal itzultzaileen artean aldizkari edo buletin gisako zerbait argitaratzeari buruz zer eritzi dagoen galdetzean, 29-k erantzun dute: 8-k *beharrezko* jotzen dute,

13-k *komenigarri*, bakarrak dio *ez dela beharrezko*, inork ez kaltegarri denik eta 7 dira eritzigabeak.

Honela, bada, *komenigarri* eta *beharrezkotzat* jotzen dutenen kopuruak 72,4 % suposatzen du, eta beraz, aurreko gaietan profesionaltasunari buruz agertzen zen interesaren ildotik doa erantzuna.

Ondoren, aldizkari edo buletin honen helburu eta eginkizunaz galdetzean: itzultzaileak aurkitzen dituen zailtasunetan laguntzea, itzultzaileen profesionaltasuna eta koordinazioa indartzea eta itzulpenen kritika eta teorizazioa egitea aipatu dira jomuga posibletzat.

Laburpen gisa: Inkesta honen bidez bildu ditugun emaitzak larriki laburtuz gero, hau esan daiteke: gure itzultzaile talde dinamikoena gazte samarra dela, 25-40 urte bitartekoa, eta gehienbat gipuzkoarrek osotzen dutela. Kultur-prestakuntza maila ona duela eta portzentaia nabarmen batetan profesionalizazio bidean sarturik dagoela, eta ia euskara batuaz soilik baliatzen direla.

Itzultzaileak bere itzulpenak neurri handi batetan gaztelaniatik egiten badituzte ere, nabarmena da beste hizkuntza batzutatik egiteko duten gaitasuna ere eta ia erabat autodidaktak izan dira beren prestakuntza prozesuari dagokionez, eta hizkuntzaren egoera ez finkatuak kezkatzen du gehienbat (lexikalak eta sintaktikoak), beraz oinarritzko premietan dauka burruka. Itzulpen teoriarik ez du ezagutzen.

Ereduei dagokienez, ez dago iraganari begira, gaurkoei baizik. Itzultzaile eta Interpretarien Eskola, Itzultzaileen Lan Ihardunaldiak, eta Itzultzaileen Aldizkari bat oso positiboki baloratzen ditu, eta bere egitekoa eta etorkizuneko lanbidea serioски profesionalizatzearen aldeko agertzen da.

EUSKAL ITZULTZAILEEN LAN IHARDUNALDIA (EILI)

Sarrera

Euskararen eta Euskal Literatur Historian zehar itzulpenak sarrera garrantzitsua izan du; beraz, hizkuntzaren baitan eragin handia izan duela aitortu daiteke *a priori*. Bestalde, kultura moderno baten eskakizunen mailan jarri nahi duen edozein hizkuntza, derriorturik dago inguruko erdaretatik itzulpenak eurrez burutzer, garapen batetara iritsi nahi badu eta gizarte elebidun batetan konkurrentzian aritu nahi badu.

Gure artean, azken aldi honetan, itzultzailearen egitekoak bultzada handi bat hartu du: testugintzan, administrazio bizitzan, hizkuntz normalizapen prozesuan etab. itzulpenak ugalduz doaz.

Gure itzulpen ekintzak badu kontutan hartu beharreko berezitasunik: alde batekin, bere burua oraindik finkatu ez duen hizkuntza bat du xede hizkuntza (target language), beraz itzultzailea hizkuntza *aldatzaile* adina *sortzaile* ere bada alor gehienetan.

Literatur testuei dagokienean, gure artean itzulpen gutxi egiten da eta itzulpen literarioak zailtasun estilistiko bereziak planteatzen dizkigu hizkuntza garatuetan aur-

kitzen diren "*niveaux de langage*" direlakoek ordain egokirik aurkitzen ez dutelako euskararen baitan.

Bestalde badirudi, hizkuntzalarien eta literaturgileen artean ez dagoela harreman handiegirik: arauemaileak iraganari begiratzen diotela gehienbat, eta alde berean, eguneroko praxis mintzatuaren eta idatzian joera desberdin batzu gorpuzten ari direla anarkian eta energi erreketak batetan galtzeko arrisku handiarekin. Beraz, interesgarri ezezik nahitaezko deritzagu *hizkuntzalari - literaturgile - itzultzaile* zirkuitu hiru-koitz hau estutzeari eta indartzeari, bakoitzaren egitekoaren eta euskararen onetan.

Gainera, munduan zehar, azken urteotako linguistikaren ereginez eta itzulpenari buruz egin diren teorizazio eta sistematizazioei esker, esperientzia eta ezagupen multzo aberats bat metatu da eta euskaratzaileon eginkizunerako argibide ugari eskaini liezaguke informazio bat izateak, gero eta zentzu kritiko handiagoz gure lanak burutzeko.

Azkenik, euskal telebista baten atarian gaudelarik, erdi epe batetara Euskal Herrian eragin sakona —erabakitzailea esango nuke— izango duen komunikabide honetan ere itzulpenak garrantzi handia izango du. Beste alorretan bezalaxe, honetan ere koordinazio orokor bat lortzea behar-beharrezkoa da euskararen finkapen prozesua desbidera ez dadin eta indarrak bateraturik joka dezagun.

Ondorio gisa, zera esan genezake, pixkanaka euskal itzultzaileen artean kontzientzia profesionala, zentzu kritiko bateratua, eta bere eginkizunarekiko ikuspegi solidario bat sortertzatza garrantzi handikoa izan daitekeela aurkitzen gareneko euskararen ibilpidean eta momentuan.

Lan Ihardunaldiaren helburua

Aurre gogoeta hauek kontutan harturik, agian Udako Euskal Unibertsitate aldian zehar, antola ditezkeen lan bilera batzuren helburu nagusia *euskal itzultzaileen arteko talde kontzientzia profesional* bat lortzen hastea izan daiteke, lotura eta harreman iraunkor batzu ezarriz, UZEI eta Itzultzaile Eskolaren inguruan koordinatuz, informazio bideren bat sortuz, eta agian, elkarte moetaen bat sortuz.

Guzti honi buruz, eritziak eskatuz inkesta bat zabaldu delarik, epe labur baten buruan itzultzaile gehiengo baten ikuspuntua ezagutzeko moduan izango gara eta bilera hauei eman beharko litzaiekeen norabidea argiago ikusiko dugu.

Behin-behineko programa baten edukinak (iradokizun gisa)

Itzultzaileen artean talde berezi edo kualifikatu bat dagoelarik, administrazio mailako itzultzaileena, eta beronek bere helburu jakinen arabera antola lezakeen programakuntzari kalterik egin gabe, orokorki ihardunaldi honetan bi eratako gaiak uki litezke:

- a) Itzultzailearen antolaketa profesionalari dagozkionak.
- b) Itzulpenaren alderdi linguistikoari dagozkionak.

Itzultzailearen antolaketa profesionala

Biltzen ari garen eritzien arabera, eta *a priori* ikusten diren zenbait arazo kontutuan izanik, puntu minimo batzu proposatzea komenigarri izan daitekeela aitortu genezake.

- Euskal Itzultzaileen Elkarte edo Antolaketa gisako zerbait beharrezkoa edo interesgarri izan liteke.
- Itzultzaile profesioaren edo eginkizunaren garantizapenerako.
- Tarifak berdintzeko.
- Gero eta handiagoa den demanda bat kanalizatzeko.
- Gero eta itzultzaile profesional gehiago sor dadin, eta arlo desberdinetan espezializa dadin.
- Nonbait informazioa zentraliza dadin, era guztietako informazioa eta iniziatibak bizkortasunez zabaltzeko.
- Prestakuntza eta “*recyclage*” erako ikastaldiak antolatzeko.
- Itzultzaile Eskolak (oinarrizkoak - espezializaziozkoak) esperientzidun ingurune bat izan deza, irakasleak biltzeko eta beste zenbait lanetarako.
- Buletin edo argitalpenen bat aldizka argitara dadin.
- Karnet, agiri edo antzeko zerbaiten premia eztabaidatzeko.

(Kontutuan har bedi itzultzaileen elkarte nazional ugari dagoela munduan zehar eta Nazioarteko Federakunde bat ere bai).

Itzulpenaren alderdi linguistikoak

Ikus daitekeenez gai eta arazo asko legoke aipaturiko Ihardunaldi batetan ukitzeko, aztertzeko eta ondorio praktikotara eramateko. Hemen orientabide gisa eskaintzen direnez aparte, beste puntu osagarri eta desberdin gehiago ere agian proposa liteke. Ihardunaldi horretarako premien hierarkia bat egin beharko da eta aktiboki partaide izateko prest dauden pertsonen artean antolaketa eta txastengintza lanak dagoeneko banatzen hasi beharko genuke nork zertarako hitza ematen duen ikusiz gero soilik muga baikenezale lan bilera horien nondik norakoa eta nortasuna finka.

Bi atal nagusietan aipatzen diren gaiak asko direlarik, agian hiruzpalau txosten nagusitan bildu beharko lirateke funtsezko eztabaida-gaiak, ondoren partaide edo entzuleek beren eritziak ager ditzaten erabakiak hartzera zuzendurik dauden puntuetan.

Udako Euskal Unibertsitatea eta Itzultzaileen Lan Ihardunaldia

Martxoaren leian, UZEI-k Udal Itzultzaileentzat antolatu zuen bileran aurkeztu zen gaian proposaturiko asmoa eta, orohar, ontzat eman zelarik hurrengo beste bilera bat antolatzea erabaki zen gai hau aztergai bakartzat harturik.

Hain zuzen, hil honen 28an ospatuko da UZEI-ren galetan aipaturiko bilera honako programaketa orokorraren arabera Ihardunaldia prestatzeko eta txostengileak hautatzeko, UEU-n Ihardunaldiak ospa daitezen.

1. **Itzulpenaren munduari buruzko informazioa:** Historia, bibliografia, linguistika eta itzulpena, itzulpen teknika eta literarioa, euskal itzulpena, euskal linguistika eta itzulpena, itzulpenaren alderdi soziolinguistikoak.
2. **Euskal Itzultzaileen Antolaketa Profesionala:** Erakundea, aldizkaria, ikastaldiak.
3. **Ihardun praktikoak:** Textu itzulien konparaketa eta kritika, erizpide bate-ratzaileak.

ITZULTZAILE ESKOLAREN ZUINAK

ITZULTZAILE ESKOLA BATEN PREMIAZ

Aurreko sailetan, laburki eta gaingiroki bederen, ukituak ditugu itzulpenaren inguruan aurki daitezkeen zenbait zailtasun eta eztabaida; baita gure historian zehar itzulpenak zenbaterainoko garrantzia izan duen, eta egungo egunean zer eratako egoeraren aurrez-aurre aurkitzen garen ere. Hainbeste eragozpen, zailtasun eta baldintza dituen zeregin honetan ihardun behar duen pertsonari esperientzia bildua eta prestakuntza sistematizatua eskuratzeak zer mesede ekarriko liokeen berari ez ezik hizkuntzaren hazkundera eta normalizapenari erraz uler daitekeena da.

Bestalde munduan zehar hedaturik dauden hainbat eta hainbat Itzultzaile eta Interprete Eskola dira premia hori nabarmen agertu eta soluziobidean jarri delako lekukorik onenak. Gure kasuan, bestalde, premia hau askozaz bizikiago somatzen da hizkuntza guztiz garatu eta finkatuen artean itzulpenak egin behar dituzten itzultzaileen artean baino ere, zeren eta inguruko hizkuntza nagusiek jadanik lortua duten *“average standard European”* prosa horren gabeziarengatik, hainbat alorretan sortzeke eta finkatzeke dugun lexikoarengatik, eta iragan hurbileko aurreritzi eta eredu- en zama astunarengatik, erizpide desberdin, kontraesankor eta zatikatzailetan gal baitaiteke itzultzailea, energia piloak alferrik erre ondoren.

Gure arazoa, Itzultzaile Eskola baten premiaz argudioak aurkitzea baino areago da Itzultzaile Eskola horren nolakotasuna mugatzea, prestakuntza eta edukien maila zehaztea eta finkatzea, eta gaurko egoeran eginkor eta fruitukorrenak izan daitezken ildoak urratzea. Eremu zabalegi baten aurrez-aurre gaudelarik, ez da hain erraza gertatzen mundu zehar dagoen esperientzi guzti hori gure egoerara egokitzen, bi tentazio moetatari erori gabe.

Alde batetik, gaizki ulerturiko efikazia edo eginkortasun berehalakoaren ize- nean, presakako prestakuntza lardoskatu, asistematiko eta teorizapen eskasekoa emateaz nahikotzearen tentazioa dago: edozer egiten dugularik ere orain artekoaren aldean beste ahalbide eta ikuspegi batzu izango dituela itzultzaileak pentsatuz.

Bestetik, ordea, teorizapen abstraktoegitan, bitxekeria formaletan, eta zehazke- ria estilistikotan galtzearen arriskua dago: prestakuntzaren helburua ez dela “erreze- tatxoak” eta “teknikatxoak” ematea, baizik eta itzultzailearen mentalizapen bat sakon eta teoriatzko hornizio on bat eskuratzea dela uste izanez.

Eta azkenik, besterik ere bada, Itzultzaile Eskola batetatik pasa izanak arazo guztiak lautuko dizkiola itzultzaileari, eta "panazea" gisako prestakuntza bat bertan lor daitekeelako uste ustelari heltzea. Honelako eskola baten ondorioak ezin daitezke espektakularrak izan; oso luzera eta faktore asko korapilotu eta sinkronizatuko diren heinean soilik ikusiko da eragina eta efikazia. Seguraski, lortutakoaren distirak baino, garrantzi handiagoa izan lezake nahasmenduari eta zatikamenduari ateak itxeak, eta itzultzailearen baitan indar ekonomizapen bat segurtatzeak.

Itzultzaile Eskola baten premiaz ari garelarik, ez dut uste gogoeta guztiok lekuz kanpokoak direnik, aurretiaz baitakit begi kritiko ugariegi zorrozituko direla Eskola-rantz, eta Orixek noizbait zioen bezala, "Aldeaurretik ba-dakit, guzien gustorik ez dutala egingo. Ez neronenik ere, jakina. Ontatik asi naiz; nere eta iñoren atsegiña baño geienen etekiña edo protxua lenago baita" (Urte guziko meza-bezperak, Bi Itz, VII.or.).

Euskal Itzultzaileei zuzenduriko Inkestetan ikusi ahal izan dugunez, euskara-tzaileak guztiz kontzientzia argia du bere egitekoaren zailtasunari buruz eta aho batez aitortzen du berak prozesu luze eta neketsu baten ondorioz lortu duena, bide errazago eta laburragoz eskuratzea posible izan daitekeela Eskola batetako irakas-kuntza sistematikoari esker.

Gurean Itzultzaile Eskola baten premia bi arrazoi moetairen gainean errotzen dela esan genezake.

a) Egunero eta urtero bere burua egiten eta finkatzen ari den hizkuntzaren ezagupidea lortzearen gainean.

b) Munduan zehar itzulpenaren inguruan bildu den teoria eta esperientzia modu arautu batez eskuratzearen gainean.

Eta azkenik, gerora aski garrantzizkoa gerta daitekeen arrazoirik ere bada: kontzientzia profesional baten katalizatzaile izateaz gainera, pixkanaka itzultzaileen erakundetze eta antolatzeari eragitea, beste herrialdeetan eman diren urratsen bidetik.

ITZULTZAILE ESKOLAREN ANTOLAKETA FASEAK

Europar eta Amerikan zehar bildutako datuen arabera, Itzulpen Eskolaren arazoa batez ere *interpretari* eginkizunetarako jendea prestatzearen premiak bultzaturik planteatu dela gehienbat ikus daiteke. "*Conference interpreter*" eta "*sworn interpreter*" deitzen beharizana nabarmenki igarri da azken hamarkadetan nazioarteko eta mundu mailako batzarreak, symposiumak, kongresoak etab. ugaltu direlarik, eta nazioarteko hauzi eta erlazio-juridiko-ekonomikoak gero eta estuagoak bilakatzen ari diren heinean, eta zehaztasun handiko hizkuntza eskatzen duten neurrian.

Gure egoera, berriz, gizarte elebidun desorekatuan eta euskararen erabilpena diglosikoa den una historiko batetan kokatzen da. Interpretari trebatuen eskabidea gure artean oraindik aski eskasa da, baina zenbait kasutan ikusi da berauen premia eta erabili ere erabili da interpreterik zenbait ikastalditxo eta kultur ihardunetan.

Hala ere, interpretariaren prestakuntzak hizkuntza biren arteko desoreka nabi-riarekin topo egiten du gurean. Beraz, badirudi zientzi sail eta alor desberdinetako hizkuntza aurretiaz finkatzea beharrezkoa dela interpretearen mintzabidezko presta-

kuntza maila duinki lortu eta ohizkoa den itzulpen maila perifrastikoa eta erredukzionistaren gurpil zorua hautsi nahi bada. Beraz, maila honetako prestakuntza zehatza lortzeko hizkuntza espezializatuaren guttienezko finkapena eta idatzizko itzulpen trebakuntzaren fasea aldeztu aurretik erre beharra argi ikusten da.

Hau da U.Z.E.I.-k “*Euskara Administrazio publikoan*” (proiektua eta aurrekontua) idatzian aurrez ikasten duena honako hau diotenean:

“...Euskaltzaindia Itzultzaile-Eskola bat martxan jartzekotan dela aipatu behar da. Eskola honek emango litzuke *itzulpen arruntetarako ikastaroak*; eta horien ondoren —eta ez lehenago— egin beharko lirateke, UZEIn nahiz egokia den tokitan, Administrazio-itzulpenetarako ikastaro berezituak. Hau da, ikastaro berezituak ezin liteke etor, alde aurretik Itzultzaile-Eskola hortatik pasa gabe” (63.or.).

Beraz, hasteko lehen helburu gisa, Itzultzaile Eskolaren ihardun eremua *itzulpen arruntetarako*, hots, itzulpen espezializatuak auresuposatuko lukeen kultura orokor mailako itzultzaile prestakuntza batetara mugatu beharko litzateke. Arazo praktikoa honetan dago: maila arrunt horren eta espezializatuaren arteko mugak lausoak direlarik, prestakuntzaren edukiak zehazten eta lehen aldi batetan maila honetako interprete prestakuntza bat ere diseinatzea beharrezkoa den ala ez erabakitzen.

Gure itzultzaile prestakuntza modulu hauen arabera aurkeztu daiteke:

Oinarritzko Itzultzaile Prestakuntza (urte bete)

Espezializaziozko Itzultzaile Prestakuntza

- A - Itzultzaile tekniko
- B - Itzultzaile literario

} Bi urte eta erdi

Interpretari prestakuntza (sei hilabete)

Euskaratzailearen oinarritzko prestakuntzaz zenbait gogoeta

Itzulpena definizioz bi hizkuntzaren arteko eragiketa denez gero, hau da, *sorburu hizkuntzaz* (source language) adieraziaren dekodapena eta *xede hizkuntzaz* (target language) adierazi horren enkodapena, bi hizkuntza hauen eta berauek duten kulturazko testuinguruaren ezagupen ahalik eta sakonena beharrezkoak dira itzultzailearentzat.

Gure kasuan, SHak gaztelania eta frantsesa izango dira gehienbat eta euskara XHa. Alderantzizko kasuak, ugalduz joango diren arren, oraindik ez dira sarriegi gertatuko.

Lehendabizi, eragiketa honetan partaide diren bi hizkuntzei bagagozkie, bien arteko desoreka nabarmentzen zaigu. SHak ongi garatuak eta munduko hizkuntza

landuenekin homologagarriak diren bitartean, euskara bere burua finkatzen eta bes-teen mailan jartzeko prozesu aski luze baten premia duen hizkuntza da; beraz, ez da menbaldeko kultur premia mailan aski egina dagoen hizkuntza, azken aldi honetan urrats handirik eman bada ere.

Bestalde gure itzultzailegai gehienen hezkuntza (ikastoletatik pixkanaka datoze-nean salbu) erdarazkoa izan da, eta teoriak itzulpen eragiketako bi hizkuntzek trata-mendu berdintsu behar badute ere, gure kasuan euskararen ezagupenak eta euskaraz burutuko den enkodapen prozesuak planteatzen dizkigute arazo larrienak.

Itzultzailegai hauen haserako prestakuntza maila, euskarari dagokionez, oro har eta onenean, euskararen ezagupen diplomak segurtatzen duen mailakoa dateke, eta B mailakoa zenbait kasutan. Euskararen ezagupen hau errebortxatzea izango da oina-rrizko baldintza: morfosintaxia eta lexikoaren mailan. Honetarako, azalpen teoriko, eta ariketa sistematikoez gainera Euskal Literaturaren zuzeneko ezagupen sakona segurtatu beharko da, gero itzulpen lanetarako ere behar-beharrezkoa izango den Estilistikazko ezagupen garrantzizko batekin.

Prestakuntzaren beste zutabe sendoa itzulpen teoriaren eta euskal itzulpenaren historiaren inguruan ardazturiko ezagupenak osatuko dute. XHaren ezagupen teoriko-praktiko sakonaz gainera, beharrezkoa du itzultzaileak gaurregun itzulpen teoriak sistematizatu duen ezagupen multzo trinko batez jabeturik egotea. Esan beha-rrik ez dago, morfosintaxiaren ikasketan ezezik itzulpen teoriaren sarreran ere, teoria linguistiko orokorrari buruzko ezagupen funtsezkoenak ere hartu beharko lituzkeela ikasleak.

Agian, Itzultzaile Eskolaren planteaketaz zehatzago aritzean hobeki ikusiko denez, oinarritzko kultur hizkuntza batez itzultzailegaia jabearaztea ere arras kome-nigarri gerta daiteke, prestatu beharreko itzultzaile hauek guztiok beren ikasketak gaztelaniaz soilik burutu dituztela kontutan hartzen badugu. O.H.O. mailan lantzen diren natur eta gizarte zientziak eta matematikazko hasi-masiak euskaraz ezagutu beharko lituzkete, azken aldiotan irakaskuntzarako argitaratu diren testu liburuak irakurritz eta aztertuz.

EUSKAL ITZULTZAILEEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZARAKO ESKOLA (EIOPE)

Helburu Nagusia

Euskara eta gaztelaniazko hizkuntz ezagupenak eta literatur historiak eta auto-reen obrak sakonduz, testu faktual eta literarioak idatziz eta bi zentzutan itzultzeko gaitasun orokorra eskuratuko zaie ikasleei, eduki teorikoen eta ariketa praktikoen bitartez.

Hasiera batetan EIOPE-ren mugatasun praktikoengatik, erdal hizkuntza baka-rra (gaztelania), erabiliko da ikasgai bezala, baina gerora hurbileneko beste erdarak pixkanaka programataratuko ditu, irakaslekoaren gaitasunaren eta ikaslekoaren eskabide eta ezagupidearen arabera.

Ihardun eta gaitasun mailari dagokionez, aipaturiko testu faktualak kultura orokorraren dibulgazio mailakoak eta kazetaritza ezespezializatukoak izango dira. Testu literarioak, berriz, prosazkoak eta narratiba generokoak gehienbat, erdi-mailako zailtasun estilistikoa dutenak izango dira.

Helburu bereziak

Aipaturiko helburu nagusia lortzea, beste azpi helburu hauen lorpenari hertsiki loturik gertatuko da:

- Euskararen baliakizun bereziez jabearaziko da ikaslea.
- Euskararen gaurkomugatasunen kontzientzia zehatza harreraziko zaio.
- Itzulpena burutzerakoan sortzen diren zailtasun morfosintaktiko, lexikal, kultural eta estilistiko arruntenez jabearaziko da ikaslea, eta berauek gainditzeko teknikez.
- Euskal itzulpenaren historia kritikoki aztertzea eta baliotzera bultzatuko da ikaslea.
- Azken urteotako euskal itzulpen dinamiko eta aurrerakoenaren ezagupidea eskainiko zaio, Euskaltzaindiaren aldia aldiko erabakiak onartuz, zentzu kritiko eta solidario batez bere lana burutu dezan.

Honako gai zerrenda honetan proposatzen diren edukiak izan daitezke Itzulzailearen Oinarrizko Prestakuntza batetan landu beharrekoak:

1. Euskal Morfosintaxia eta Lexikologia
2. Euskal Literaturaren Historia
3. Teoria linguistiko Orokorra
4. Itzulpenaren teoria eta testu mailakatuen itzulpen ariketa
5. Euskal itzulpenaren historia kritikoa
6. Gaztelaniazko gramatika, lexikologia eta Literatur historia.

Euskal Morfosintaxia eta Lexikologia

Sarrerako gogoetan aditzera eman denaren ildotik, itzulzailegaiak Eskolara sartzean dakarren euskararen ezagupena sakontzea, finkatzea eta aberastea luke helburutzat gai honek. Euskarari buruzko gogoeta teorikoa ezezik, ariketa ugari eragin-goi litzaiokie deklinabidearen, aditzaren, hitzen elkarketa eta erakarketaren baliakizunak jabetasun osoz erabil ditzan.

Bestalde, lexikologiak tratamendu berezi bat hartuko luke gure historian zehar burutu diren lau lexikografikoak ongi ezagut ditzan, eta aldian aldiko erizpideak kontrastatu eta baloratzen jakin dezan. Hau guztian azken urteotan Semantika eta Lexikologia alorrean orokorki lortu denaren argitan ikusi eta aztertu beharko litzateke.

Sintaxiaren alorrean, berriz, euskal literaturan zehar izan ditugun joera desberdinak (klasikoen, iparraldekoen, hegoaldekoen) kritikoki aztertzea, eta azken aldi honetan gure hizkuntzalariak ematen ari diren urratsak ezaguteraztea eta gaurregunekor prosan bereziki nabari den joera integratzaileaz jabearaztea izango litzateke helburua.

Eskolak sentiberatasun berezia behar du Euskaltzaindiak euskara bateratzearen bidetik eman eta emango dituen pauso guztiekiko, gure itzultzaileen sormena ito gabe, euskararen finkapen prozesuan abenturismo anarkikoak eta alferrikako barreaketak nagusi ez daitezen.

Itzultzaileak behar-beharrezkoa du euskararen berezko baliabideez ongi jabeturik egotea, itzulpenak suposatzen duen hizkuntza biren arteko gataskan, sorburu-hizkuntzaren molde eta jitearen azpian menderaturik gera ez dadin, eta hizkuntza hartzailea zabarkeriaz gehiegi bortxa eta desitxura ez dezan.

Euskal Literaturaren Historia

Itzultzaileak beharrezkoa du Euskal Literaturaren Historian zehar eman diren eredu bizien zuzeneko ezagupena. Beraz, Literatur Historia hau ez da mugatuko soilik aro, eskola eta autore desberdinen informazio soil ematera, baizik eta euskara batuz eta euskalki literarioz sortu diren obra garrantzitsu eta adierazgarri guztiak zehazki aztertu eta sakonduko dira prestakuntzan zehar.

Honetarako Estilistika eta Dialektologiaren laguntzaz baliatuko da ikaslea. Aurreko gaiarekikoan esan bezala, gure literaturaren ezagutze sakonak, oinarri trinkoak eman behar dizkio itzultzaileari gaztelaniarekiko gataskan hizkuntz altxor ahul eta desorekatuegi batekin sar ez dadin.

Teoria linguistiko Orokorra

Beste zenbait lekutan esan denaren arabera, eta itzulpen teoriari arduratu direnen ildotik (*any theory of translation must draw upon a theory of language - a general linguistic theory (Catford)*) azken aldi honetako linguistikak erabat aldatu du hizkuntzari buruzko ikuspegia, itzultzailearen egitekoaren posibilitatea bera ere zalantzan jartzearaino. Mounin, Buzzetti eta beste zenbaiten bidetik, itzultzailearen behinola "ingenuitatea" inarrosi egin du linguistikak, baina bestaldetik itzultzea, erlatiboki itzultzea posible dela uste dugu. Tirandurazko dialektika honetaz itzultzailea jabe dadin, beharrezko zaio azken ekarri linguistikoak ezagutzea.

F. de Saussuregandik datorren lengoaiari buruzko ikuspegi berria, Bloomfielden erizpide "behaviorista", Hjelmslev-en linguistika distribuzional eta deskriptiboa, Whorf eta Sapirengan gorputzu diren teoria neo-humboldtarrak, James Barrek hizkuntza biblikoen inguruan azaldutako eritziak, eta esperantzagarriagoak diren Maurice Leroy eta Stephen Ullmann, hizkuntzazko "unibertsalen" atzetik dabilzanenak, Chomsky eta abar bezalakoena; Bibliaren itzulpen munduan esperientzia apartekoa bildu duen E. Nidaren ikuspuntuak etab., oinarritzkoak dira itzultzaile baten prestakuntzan.

Lexikoa eta itzulpenari dagokionean, unitate semantiko minimoen mailan, Martinet, Prieto eta Gardinek burututako ikasketak, konnotapen-denotapen kontzeptuak, "Weltanschauung" eta itzulpena, etnografia eta itzulpena, filologia eta itzulpena, sintaxia eta itzulpena bezalako gai orokor hauetan linguistikoki burutu diren aurkikundeak ezin ditzake alde batetara utz itzultzaileak. Linguistak ez dira, beraz, itzultzailearen adar-jotzaile batzu, baizik eta, agian, ume ikuspegi batetatik ikuspuntu helduago batetara pausoak ematen lagunduko diotenak baizik.

Itzulpen teoria eta textuen itzulketa

Lehenagoari hurbiletik loturiko gai hau asko berria delarik ere, Catford, Feodorov, Mounin, Vinay-Darbelnet, Störig, Nida eta abarren lanetan oinarri daitekeena da eta itzultzaileari ezagupen eta teknika sistematizatuzko gorputz, ahalik eta zehatz eta lotuena, eskaintzea litzateke beronen helburua.

Itzulpen definizioa, moeta orokorrak, itzulpen baliokidetza, korrespondentzia dinamikoa eta formala, adierazia eta itzulpen osoa, transferentzia, itzulpen baliokidetza baldintzak, itzulpen fonologiko eta grafologikoa, transliterazioa, gramatikazko eta lexikozko itzulpena, itzulpenezko desplazamenduak, itzulpena eta lengoia moeta desberdinak, itzulgarritasunaren mugak eta abar bezalako interesguneen inguruan ardaztu daiteke ikasgai hau. Itzultzaileari burutzen duen lanari buruzko ikuspegi erreflexu eta jakinaren gainekoa eskuratzea luke helburutzat.

Bistan dago, hau guztian parez-parezko textu mailakatu batzuen itzulpen ariketa gidatu batez hornitu eta finkatu behar dela, lengoia denotatiboa eta konnotatiboa-aren artean nabarmentzen diren desberdintasunak azpimarkatuz eta bakoitzaren berezitasunak nolabait agerian jarri.

Euskal itzulpenaren historia kritikoa

Aurreproiektu honetan jadanik ezagutzera eman den euskal itzulpen zerrendaren arabera, joera desberdinetako textu itzuli adierazgarrienez antologia ahalik eta zabalena burutuko litzateke jatorrizko hizkuntzazko (edo hurbileneko erdarazko) textua eta itzulpen parez-pare jarri. Itzultzaile bakoitzak egin duen itzulpena kritikoki aztertzea, erabili dituen teknikez jabetzea, beste itzulpen ahalbide batzuei aurkitzen ahalegintzea etab. izango litzateke helburu praktikoa. Honetarako, beti itzulpen bakoitza bere testuinguru historiko-linguistikoko kokatuko da, gure itzulpenaren diakronia baten argitan gaurreguneko itzulpenaren unea bere baldintza, muga eta ahalbide guztiekin ager dadin.

Gaztelaniazko Hizkuntza eta Literatur Historia

Lehenago esan dugunez, itzulpena definizioz bi hizkuntzaren arteko eragiketa denez gero, herren geratuko litzateke itzulpenaren prestakuntza gehienbat erabiliko den **sorburu hizkuntza** (SH), gure kasuan eta oraingoz behintzat gaztelania, modu sistematiko batez eta ahalik eta ñabardura gehienekin ezagutuko ez balitz.

Teoria eta praktikaren arteko oreka bat lortu beharko da honetan ere eta Euskal morfosintaxia eta lexikologian bezala, linguistika kontrastibo baten bidetik, hizkuntza bien arteko konparaketa bat ahalik eta zehazkien egiten ahalegindu beharko luke irakasleak, interferentzi iturri izan daitezkeen elementu morfosintaktiko eta lexikalen nortasun desberdina kontrajarri eta azpimarkatuz.

Halaber, euskararen baitan baino askozaz ñabarragoak diren hizkuntz erregistro desberdinen azterketa eta zehazpena ere ardura handiz burutu beharko luke, hiz-

kuntza modernoak beharrezkoa duen adierazmen guztia gure hizkuntzan ere pixkanaka lor dadin.

Literatur Historiari dagokionean, nola euskarazkoari hala gaztelaniazkori, eredu klasiko, agian zaharkituak, aztertzeari adinako edo gehiagoko balioa eman behar zaio, gure ustez, azken urteotakoak aztertzeari eta bereziki kazetaritzaren munduan egunero sortzen ari den hizkuntzari, nahiz eta beronen zati handi bat aski suntsikorra izan.

IRAKASLEGOAREN BEREZITASUNAK

Aurreko sailean proposatu den ikasgaien zerrenda kontutan hartuz gero, berehala ikusten da egiturapen maila desberdinetako edukiak eskaintzen direla Itzultzailearen Oinarrizko Prestakuntzan. Hirugarren eta seigarren gaiak, hots, *Teoria Linguistiko Orokorra* eta *Gaztelaniazko gramatika, lexikologia eta Literatur historia* dirateke orain arteko unibertsital ikasketen arabera gairik arautuenak edo standarizatuak.

Lehen gaiak soilik izango luke zailtasun pixkaren bat, Teoria Linguistiko Orokorrean ohizkoa den terminologia euskaraz emateak suposa lezakeen heinean.

Bigarrenak, gisa denez, gaztelaniaz emango litzatekeelarik, espezialitate honetako filologi ikasketak burutu dituenarentzat ez luke neke handiegirik. Hala ere, gramatika eta lexikologiari dagokionean, itzultzailegaiaren prestakuntzaz ari garelarik, linguistika kontrastiboaren ildotik zuzendu beharko litzateke gaiaren aurkezpena, beraz euskara eta gaztelaniaren arteko konparaketa bat eginez. Honela bada, euskararen ezagupen sakon samarra beharko luke irakasle honek ere, gaztelaniaren azpisistemak beren baitatik azaltzera soilik mugatu nahi ez badu bere eginkizuna.

— Lehen eta bigarren gaiak, hots, *Euskal Morfosintaxia, lexikologia eta Euskal literaturaren Historia*, euskal filologiazko ikasketetan zehar nolabait egituratuz badoaz ere, maila desberdinetako finkapen-gabezia aurkitzen dira, sintaxia eta lexikologia bereziki. Arrasateko Ihardunaldietan eman diren lehen urratsak gora behera, ausia oraindik oso urrun dago erabakitzetik. Duela hamar urte eta gehiago K. Mitxelenak zioenaren arabera, “herri gaietan izan ezik, ez dugu kultura berezirik... Ezin izan dezakegu azkatzazunik hizkuntzaren aldetik... Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik”.

Euskal itzultzailearentzat neurri batetan lasaigarri eta eskergarri dira hizkuntzariaren hitz hauek, bai eta B. L. Whorf-ek “standard average European” deiturikoa- ren ildotik jo beharko lukeela gure prosak nolabait iradokitzea ere, “hitz ordenaz eta aurkitu diren legeak ez direla idazlea estekatzeko gateak, honen kemenak gehi ditza- keten lanabesak baizik”, gogoraziz. Puntu honetan, beste zenbaitetan bezala, arau- emaileek eta betetzailleek elkarrekiko akordio bat lortzea erraza ez badute ere, gutxi- nez elkarri begiratzu eta gehiegi ez urruntzea helburu dela jokatu beharko da.

Gai honetan arituko den irakasleari, euskal prosak historian zehar urratu duen ildo ongi ezagutzea, arautzaileegia ez izatea, eta itzultzaileak bere eginkizunean aurkitzen dituen zailtasunez jabeturik egotea eskatu beharko litzaioke, beste era batetara konpon ezin daitekeena “sen hoberenaz” osa dezan, “euskal usain eta kutsuaz” baino prosaren neutrotasunaz areago arduratuz.

Lexikologiari dagokionean, orientabide gisa, “*Euskal Hiztegi Arauemailea*”, burutzean I. Sarasolak darabiltzan erizpideetan oinarritu beharko litzateke, Hizkuntza Orokorrari dagokionean, eta UZEI-k bere hiztegegintzan darabiltzanetan hizkuntza teknikoaz denaz bezanbatean.

Euskal Literaturari dagokionean, berriz, ohizko eskuliburuetan eskaintzen den informazioaz gainera, autore adierazgarri guztien obrak zuzenik ezagutzea eta balorapen estilistiko bat egiten eta eragiten jakitea nahitaezko baldintza luke irakasleak, azken aldi honetan gure artean nabarmentzen ari den literatur kritika estrukturalistaren bidetik, baina formalismo ontzuegi batetan erori gabe. Esan beharrik ez dago, guzti honetarako mendealdeko literaturaren ezagupen on bat beharrezkoa duela irakasleak, gure betiko “ghetto” giroan ez itotzeko.

Ezin ahantzizkoa dugu, gure artean aski eskasa dena eta etorkizunean ugaltu beharko dugun itzulpen literarioak, zailtasun bereziak ezezik ia gainditu ezinezko eragozpenak dituela, lehenago aipaturiko “*niveaux de langage*” direlakoengatik eta alor honetan estilistika benetan sakontzea eta sentiberatasun berri bat lortzea nahitaezkoa dugula. Arazo hau ez da epe laburrean ebatz daitekeena, eta literaturgintzan serioski ari diren idazleen eskutik soilik lor dezakegu hizkuntza konnotatiboak dituen nabardura guztiak isladatzeko heldutasuna. Gure tradiziozko eta gaurko baliabideak ezagutzen eta neurtzen, iraganbideko plangintza bat egiten eta nahikundeetan ez erortzen ikasi beharko dugu oraingoz, irakurlearen hizkuntz ezagupen maila hobetuz, eta komunikabideen bitartez kultur espazio berriak eskuratuz goazen bitartean. Kezka funtzionalégitan murgildurik gabiltza, estilistika mailari aurrera egiteko, zoritxarrez.

— Laugarren eta boskarren gaiak, *itzulpenaren teoria*, *oinarrizko testu literario eta faktualen itzulpen mailakatuak*, eta *Euskal itzulpenaren historia kritikoa* dira zailtasun handienekoak, irudimen eta sistematizazio lan handiena eskatzen baitute.

Itzulpenaren teoriari dagokionean, ingelesa, frantsesa, eta agian alemana eta errusiera ezagutzea beharrezkotzat jo behar dira, hizkuntza hauetan aurkitzen baita itzulpen teoriari buruzko bibliografia.

Prestakuntza linguistiko egoki samar bat izanik, aipaturiko hizkuntzetan aurkitzen den sistematizazio hori euskaratu eta euskarazko eta gaztelaniazko adibidez edo ereduz hornitu beharko litzateke, gure helburuen arabera.

Itzulpen mailakatuak, berriz aurreko teoriari loturik, bai hizkuntza faktualaren eta bai literarioaren mailan, egin beharreko ariketez osatuko lirateke. Gai hau emateko aurreko irakasle bera beharko litzateke, agian, eta edozein kasutan itzulpen lanean esperientzia luzea duena. Behar bada, gehiegizkoa gerta liteke pertsona bakarrentzat aipaturiko bi moztatuko itzulpenen ardura hartzea eta euskal literaturaz eta estilistikaz arduratzen denak berak har lezake testu literarioak itultzearen gidaritza, edota.

Euskal Itzulpenaren Historia Kritikoa eman behar duenak berak. Ariketa mailakatu hauetarako xede hizkuntza (target language) gehienbat euskara izango bada ere, hizkuntza bien arteko berdin-desberdintasunez hobeki jabearazteko bi zentzutan ere egingo direlarik, Gaztelaniazko gramatika, lexikologia eta Literatur Historiaren irakasleak izan beharko luke xede hizkuntzatzat erdara harturik egingo diren itzulpen saioen gidari eta kontrolatzaile.

Gai honetaz aurreko sailean esan den guztia gogoan izanik, helburu bikoitza luke Euskal Itzulpenaren Historia eman duen irakasleak: alde batetik, jatorrizko tex-

tuak eta itzulpenak bere testuinguruan kokatuz baloratze kritiko bat egiten lagundu beharko lieke ikasleei, eta bestetik berauek egingo dituzten azterketa eta balorapen pertsonalak gidatu eta neurtu beharko lituzke.

Ondorio gisa

Eskaini diren oharren arabera, eta Eskolako irakasleak neurritz kanpo ugaltu nahi ez baldin badira, ekonomi aitzinkontuak nabarmenki astunduz, teoriatzko agerpenak egingo dituzten irakasle gehienek gai izan beharko lukete itzulpen praxian neurri batetan nahiz bestetan esku hartzeko. Bestalde, esperientzia eta ikuspuntu desberdinen arteko kontrastapen hau aberasgarri gerta lekioko ikasleari, koordinazio edo komuntadura eginkor baten barruan burutzen bada.

Bistan da irakaslegoaren lanak, benetan fruitukorra eta eginkorra izan nahi baldin badu, beharrezko duela elkarren artean bilerak ugari egitea erizpideak eta ikuspegiak bateratzeko, eta guztien ekintzari lotura emateko.

Edozein irakaskuntz moetak komenigarria duen hau, are komenigarriago, eta ezinbesteko du Itzultzaile Eskola batetako irakaskuntzak bere nortasun bereziarengatik, eta zenbait gaik duen izakera ez-komentzionalarengatik. Beraz, sakabanakuntza eta barreiakuntza jo behar da irakaslego honen arrisku edo gaitzik kaltegarrientzat, eta sorreratik beretik kontu handiz ahalegindu beharko da akats honi hesiak jartzen.

IKASLEGOAREN BEREZITASUNAK

Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskolan sartuko liratekeen ikasleen berezitasunak ongi aztertzea eta ondorioz baldintzak zehazki mugatzea garrantzi handikoa dela uste dugu, zeren eta eskolaren eta beronek eskainiko lukeen prestakuntzaren arrakasta auzi hau ongi ebazteari loturik baitago hein handi batetan.

Oro har, zaila da hasera batetan eta orain-oraingoz ikaslegai potentzialen artean dagoen eskabide osoari erantzun ahal izatea, baldintza eta antolaketa desberdinak beharko bailirateke guztien gurariei erantzun ahal izateko.

Ikaslego potentzial garrantzitsu bat udal itzultzaileek osatzen dute, inkesten bidez jaso ditugun eritzien arabera; baina multzo honek dituen berezitasunengatik (goizetan burutzen duten profesionala, barreiakuntza geografikoa, helburu funtzional eta konkretuegia etab.) oso zail ikusten da irakaskuntza formal gisako baten planteaketa eta honelako Eskola batek eskatzen duen orube zabalago bat ezartzearen interesak nola uztar litezkeen. EIOPE ezin liteke sorreratik bertatik hain interes konkretu eta mugatu batzuren baldintzapean abiaraz, gerorako ikuspegi zabalago bati erantzun nahi izanez gero. Oraingoz UZEI-ren koordinazio linguistikoaren bitartez, eman beharko zaio irtenbidea multzo honen prestakuntza arazoari eta gerora Administrazio Kontseilaritzaren edo Kultur Kontseilaritzaren azpian sor litekeen Institutu edo erakundeen baten bidez, agian. Halere, honek ez du esan nahi, EIOPE-k bere ahalbideten arabera noiz behinka ikastaldi bereziren batzu antola ezin ditzakeenik, UZEIrekiko koordinaziopean, eta behin-behineko, erantzun bat ematen hasteko, eta gerora agian arratseko eta asteburutako klaseak ere antola ezin ditzakeenik. Baina hasera

batetan, EIOPE-k ezin lezake bere sorrera multzo honi erantzuteak ezarriko lizkiokeen baldintzen pean muga.

Itzultzaile Eskolek munduan zehar duten *status* hori gogoan izanik, programen trinkotasuna, irakaslegoaren berezitasun eta esperientzi beharrezana, eta ikaslearen prestakuntzaren konplexutasuna, gure artean hizkuntzaren beraren normalizazio gabeziak areagotzen dena gainera, etab. derriorezko deritzagu *irakaskuntza formalaren ereduari* harik eta hurbilen jarraikitzeari, eta ondorioz Eskolan parte hartuko duen ikaslegoaren berezitasunak muga horren barruan egokituko direnak izateari.

Beraz, irakaskuntza formalaz ari garenean, larriki zer ulertzen dugun aditzera emateko zera esango guke: irakaskuntza hau aste osoz (astelehenetik ostiralera) eta goizeko orduetan klaseak emanez burutuko litzatekeela, eta eguneko lan pertsonalerako denboraldi nabarmen bat beharko lukeela ikasleak klaseko ezagupenak beretzeko, aberasteko eta sakontzeko, notak, ariketak eta bibliografia eurrez erabiliz. Eta bestalde, gutxienez ikasturte batetako iraupena izango lukeela bere froga eta guzti eta azkean, agiri edo diplomaren bat lortuko lukeela oinarritzko eta espezializazioko prestakuntzaren bukaeran.

Aipaturiko aurrebaldintza hauen barruan ikasketak burutzeko gogoia aditzera eman lezaten itzultzailegaien multzoa Eskolaren erantzun ahalbideak berak mugatuko du, ezinbestez eta haseran aski kopuru urriari soilik prestakuntza eman ahal izango zaiolako. Baina honezaz aparte, bi parametroren arabera ere mugatu beharko da ikaslegoaren sarrera:

- a) Ikasketa Orokorren mailaren arabera.
- b) Euskararen ezagupen mailaren arabera.

Arazoi nabariengatik, gutxienezko homogenotasun bat lortzea behar-beharrezkoa da ikaslegoaren baitan irakaskuntzaren maila ahalik eta zehazkien mugatzeko eta finkatzeko.

Ikasketa Orokorrei dagokienez, badirudi sarrera baldintza hestuegia izango litzatekeela ikasketa unibertsitario moetaren bat bukatua izatea; bestalde, unibertsitate mailako edozein karrerak ere ez baitu suposatzen hizkuntz alorreko prestakuntza handiegirik. Halere, kultura orokor on bat beharrezkoa delarik. C.O.U. mailako ikasketak eskatu beharko genituzkeela uste dugu eta antzinagoko ikasketak burutu dituztenengan ere antzeko maila. Ikasle kopuru handiegia gerta baledi, froga baten bitartez egin beharko litzateke taldearen mugaketa.

Euskarari dagokionean, berriz, gutxienez orain arteko Euskaltzaindiaren “D” tituluaren jabe izatea eskatuko litzateke, eta “B” dutenek beti ere lehentasuna izango lukete hautaketa egiterakoan, kultur maila berdintsukoak izanez gero. Honetan ere beste froga bat ezarri beharko litzateke aipaturiko tituluak ere bere historian zehar eduki aldaketak izan dituela kontutan hartuz gero.

Beraz, C.O.U. maila edo antzeko Prestakuntza Orokorrak eta Euskarazko “D” mailak mugatuko lukete ikaslearen sarrera eta ondoren burutuko liratekeen aipaturiko bi frogan bitartez hautatuko lirateke ikasturtean zehar Eskolan partaide izango liratekeenak, beronen erantzun ahalbidearen arabera.

ITZULTZAILE ESKOLAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ZENBAIT ZEHAZTAPEN

Sail honetan sartuko ditugu, laburki trataturik, Euskal Itzultzaileentzako Eskolaren funtzionamenduak hurbiletik zehaztu eta, hurrengo proiektu erabat finkatu beharko dituen zenbait alderdi, hala nola: ikasturtearen zertzeladak, erakundetzea, egoitza, ikasturteaz kanpoko ekintzak, hedapen plangintza etab.

a) IKASTURTEAREN ZERTZELADAK

Inkestetan zehar bildu diren eritzien arabera, eta gure gaurko egoeran partaide diren faktore desberdinak kontutan harturik, badirudi Itzultzailearen Oinarrizko Prestakuntzak aski lukeela *urte betekoa iraupena izatea*, zeren eta Espezializaziozko bigarren urte batez osatuko bailitzateke ondoren Itzultzailearen prestakuntza hizkuntza teknikoaren, nahiz literarioaren mailan.

Eskolaren esperientziarik eza eta bere bideak pixkanaka urratu beharra, gure itzultzaile eskabidearen definizio lausoa, ahalbide ekonomikoak, geografikoki zerbitzu hauek hedatu beharra, ikastaldi laburrak eratu beharra, eskolaz kanpoko ekintzaren batzu bultzatu beharra etab. bezalako arrazoiek bultzatzen gaituzte honela pentsatzera. Halere, honek ez du esan nahi erdi epe batetara eta zenbait alderdi zehaztu ahal, iraupen handiagoko prestakuntza bilaka ezin daitekeenik oraingoz urte betekoa izango den hau.

— Irailaren lehen hamabostaldian irekiko litzateke matrikula epea eta beronen ondoren, sarrerako froga bat ezarriko litzateke baldintzak betez eskabidea egin dutenen kopurua Eskolaren funtzionamenduak bere baitan har lezakeena baino handiago izango balitz.

— Ikasturtea Unibertsitateak daukan egutegi eta ordutegiari jarraikiko litzaioke, beraz urrian hasi eta ekainera bitartean banatu litzateke irakaskuntza bi froga eginez eta azkenean ebaluapen orokor bat burutuz. Ikasturtea probetxuz gainditu duenari Euskaltzaindiak Eskolaren izenean agiri edo diplomaren bat eskuratuko lioke, honela Espezializazio mailako bigarren ikasturtean sartzeko presturik dagoela adieraziz. Ikaslea bere eskuko litzateke Oinarrizko Maila honetan geratzeko, edota Espezializazio mailako ikasketak burutzeko.

b) ESKOLAREN ERAKUNDETZEA

Euskaltzaindiak Batzorde bat izendatu beharko luke Jagon Saileko Burua Lehendakari dela, Eskolaren Zuzendaria, ikasleren batzu, eta beste zenbait batzordekide partaide direla, Eskolaren funtzionamendua gainbegiratzeko eta beroni buruz hartu behar diren erabaki nagusiak hartzeko, beronen ihardunari hurbiletik jarraikitze, finantziabidezko eta bestelako arazoak konpontzeko. Eskolaren Zuzendariak hiru hilabetero txosten bat aurkeztuko lioke Batzorde honi Eskolaren funtzionamenduari buruzko zehaztasunak emanez, arautiko egingo liratekeen bileretan. Ustegabe

ko edo ohizkoa ez den arazoren bat gertatzean ere Batzorde honetara joko luke, aldiari aldiko beharrian eta auziak planteatuz.

— Eskolaren barne-funtzionamenduari dagokionez, zuzendariak, irakasleek eta ikasleen ordezkarien artean kontseilu bat eratuko litzateke eta beroni legokioko urtean zehar Arautegi eta Barne-erregelamendu baten aurreproiektua prestatzea, gero Euskaltzaindiko Batzordearen eskutan jartzeko eta onartua izateko, behar diren zuzenketa eta osaketak eginik.

c) ESKOLAREN EGOITZA

Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Lehen Eskola hau Donostian eraikiko delarik, eta Euskaltzaindia oraingoz agian honelako zerbitzu batetarako beharrezko den egoitza baten jabe ez denez gero, jadanik ekinen diharduen unibertsital zentru edo antzeko erakunderen batez baliatu beharko litzateke bere Eskola honi azpiegitura egokia eskuratu ahal izateko.

Eskolak bere funtzionamendurako beharrezkoak dituen gelez gainera (Ikasgela, Zuzendaritza, Sekretaritza, Batzar gela edo Irakasle gela) Liburutegi Zerbitzu egoki bat beharko luke, ondoren aipatuko diren gaiet buruz:

- Linguistika Orokorra (zenbait aldirkari barne)
- Euskal Linguistika eta Lexikologia
- Euskal Literatura (historiak, obrak, lan kritikoak)
- Gaztelaniazko linguistika eta Lexikologia
- Gaztelaniazko Literatura (historia, obrak, lan kritikoak)
- Mundu literaturako oinarrizko obrak
- Estilistika
- Hizkuntza moderno eta klasikoetako hiztegiak
- Azken urteotako euskal itzulpenak sorturiko obra nabarmenenak (UZEI, Elhuyar, Ikastolako testuak, Liturgi itzulpenak, Entziklopedia etab.)
- Euskal aldirkariak eta egunkariak.

Oharra: Eskola bere aldetik arduratuko litzateke itzulpenari buruzko bibliografia (obrak eta adizkariak) eskuratzen eta bere hondo berezi bat sortzen aitzin-kontu baten arabera.

d) IKASTURTEAZ KANPOKO EKINTZAK

Eskolaren helburu lehena eta garrantzitsuena goian aipatu den ikasturte arautu horretan zehar banatuko den prestakuntza ematea bada ere, badira zenbait ekintza oso hurbiletik lotzen zaizkionak eta bere ahalbideen arabera burutu beharko litzuzkeenak:

Ikastaldi laburrak

Ikaslegoari buruz hitz egiten, esanaren arabera, bada gaurregun Udal Itzultzaile multzo bat, profesionalki lan horretan ari dena, eta prestakuntza bat lortzeko interes handia erakutsi duena. Aipatu diren arrazoiengatik, ikasturte arautu batetan ezinez-

koa gertatzen da era honetako eskabideari erantzutea, eta urtean zehar, Eguberri eta Bazko oporretan, eta batez ere Udakoetan ikastaldi laburrak prestatzeari ekin beharko dio Eskolak, ikasturtean zehar erabili dituen gaiak laburtuz eta irakasleak erabiliz, UZEIko udal itzultzaileen koordinatzailearekin lankidetzat estuan.

Euskal Itzultzaileen Lan Ihardunaldiak

Dossier-Aurreproiektu honetan bertan iradokitzen denaren ildotik, aurtengo udatik hasi eta Udako Euskal Unibertsitatearekin eta UZEI-ko Udal Itzultzaileen Koordinatzailearekiko lankidetzan, urtero gutxienez gisa honetako Ihardunaldi batzutan antolatzaile eta eragile izan beharko du EIOPE-k euskal itzultzaileen kontzientzia profesionala azkartzeko eta itzulpenaren inguruan egin daitezkeen sakonketa teoriko eta praktikoak bultzatzeko.

Euskal Itzultzaileen Buletina

Euskal Itzultzaileek inkestetan aho batez diotenaren arabera, eta Lan Ihardunaldietan erabaki litekeenaren bidetik, EIOPE-k agian bere gain hartu beharko luke Buletin hau egitea eta beronen bitartez itzultzaileen arteko lotura bat sendotzea egokiak izan litezkeen gaiak, artikulua etab. erabiliz, bibliografiako iruzkinak eginez eta maila guztietako informazioa banatuz.

Itzulpenari buruzko Oinarrizko Textu eta Bibliografiaren argitalpena

Euskaraz ezezik gaztelaniaz ere itzulpenari buruzko bibliografia handirik ez dagoenez gero, klaseetan zehar irakasleek banatuko dituzten notak eta zenbait liburu eta artikuluren itzulpenak moldatuz, funtsezkoa izan daitekeen liburu sorta bat argitaratzen hastea ere EIOPE-k egin beharko litzukeen lanen artean sartzen da. Munduan zehar dagoen esperientzia gure arteratzeaz gainera, gure euskal itzulpena kritikoki aztertzeaz ikertzeaz ere arduratuko litzateke sorta hau, bai eta Lan Ihardunaldietan eman diran ponentziak etab. eskaintzeaz ere.

Ikerketa lanak

Alde batetik, euskara finkatu gabe dagoela ikusirik, eta bestetik maila guztietako itzulpenen bidez, egunero, hitz eta esaunda berriak eurrez sortzen ari direla eta sarritan erizpide desberdin eta anarkikoz, 1976.eko urtarrilaren 2an, "*Euskarazko Neologismo eta Terminologiaren inguruan*" izeneko txostenean Euskaltzaindiari eskaini nizekion iradokizunen bidetik, agian Eskola honek orduan proposamen gisa aurkeztutakoa bere gain hartzea ere garrantzi handiko gerta liteke Itzultzaileen prestakuntzarako ezezik, Euskararen finkapenerako ere.

Hona hemen hitzez-hitz txosten hartako proposamenak:

a) Euskal editorialetxe edo euskal liburu bildumen arduradunekin, euskal txogintzako talde teknikoekin, aldizkari zuzendariekin, e.a. harremanetan jarri eta terminologi bilketa eredu bat proposatu beharko luke.

b) Pertsona egokiren bat hautatu beharko luke Euskaltzaindiak lan honetako eragile izan dadin, eta eginkizun hau burutzeko beharrezkoak diren bitarteko eta laguntasuna bilatzen ahalegindu beharko luke.

Agian, hizkuntzalariz eta zientzi alor desberdinetako jende adituz osoturiko kontseiluren bat beharko luke inguruan, linguistikazko garrantia ez ezik zientziatzkoa ere izan dezan lan horrek.

c) Oraindainoko terminologiaren eta neologismoen biltze sistematiko bat egin ondoren, galbahetu eta forma egokien edo gomendagarrien proposamena egin beharko litzateke.

d) Hitz zerrenda horik textuinguru egokitan eta oharrez horniturik, argitara ematearen ardura hartu beharko luke Euskaltzaindiak bere gain; horretara idazle, textugile, euskaratzaile, irakasle eta editorialetako zuzentzaileen eskuetara hel daitezten.

e) Hitz berriak sortzea guztion zeregina —idazleona batipat— bada ere, lehen aipatutako eragileak eta beronen kontseiluak eginkizun garrantzitsu bat dute honetan: informazio zehatz eta iraunkor bat eskuratzearena eta bide bat gomendatzearena.

e) HEDAPEN PLANGINTZA

Zer eratako eskabidea dagoen ikusirik, eta Donostian honelako Eskola bat kokatzeak Bizkai alde guztia aukerarik gabe uzten duela kontutan harturik, urte betez esperientzia positiboki burutu bezain laster Bilbon beste antzeko Eskola bati hasera ematea egoki izan liteke.

Lehenago esan dugunaren arabera, Eskola honen helburua ez da berehalako premia batzuei behin-behineko eta nolabaiteko erantzuna ematea, baina leku bakar batetan soilik esperientzia metatzera ere ezin daiteke muga. Beraz, ekonomiazko baldintzek posiblezta dezaten neurrian, egokia izango litzateke behar bada, probintzia hartan, eta bereziki Bilbo aldean, honelako ekintza bat aurrera eraman lezaketen pertsonekin harremanetan jartzea, eta beste Eskola batetarako heltze eta prestatze prozesu bat irekitzea Donostian emango diren urratsen gain.

Erdi epe batetara bi Eskola hauek funtzionamenduan ari izateak, elkarri langu-tza handia eskuratuko liokete programaketa, ikerketa eta eskolaz kanpoko ekintzen eremuan, bai eta ikastaldiak antolatzerakoan ere.